

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

3806

EBAZPENA, 2013ko abuztuaren 30ekoa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, garapenerako 2013ko lankidetzaproiektuentzako laguntzetarako deialdia egiteko dena.

Euskal gizarteak betidanik erakutsi du gizarte solidarioa dela, eta guztiontzako harreman eredu zuzena lortzearen aldeko borondatea duela. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak premisa horretara egokitzen du bere ekintza, eta den-denak –emakume eta gizonak, ipar eta hegoak– bilduko dituen garapen-eredu bat sortzen ahalegintzen da etengabean.

Giza garapen horren arabera, gaitasun, askatasun eta aukera indibidual eta kolektiboak sortu eta finkatu behar dira. Kontzeptu konplexua da, elkarren artean harreman estua duten hainbat dimentsio –ekonomikoa, soziala, politikoa, kulturala, ingurumenekoa, generokoa eta psikologikoa– eta zenbait jardun-maila –tokikoa, estatukoa eta nazioartekoa– biltzen baititu. Alderdi horietan guztietan aldaketak sustatu eta ahalbidetu behar dira, modu integral eta koherentean, prozesuak bultzatuz jardun-ikuspegi ordenatu eta progresibo batetik, epe luzera begira.

Horiek horrela, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak apustua egiten du lankidetzta egiturazko eta eraldatzaile baten alde. Lankidetzta horrek epe luzerako aldaketa-prozesu integrallak sustatu nahi ditu, garapena oztopatzen duten arrazoi guztietan eragiteko, eta ondorioz maila guztietan (tokikoan, estatuan eta nazioartean) erakunde, arau eta balioak eraldatzeko, epe laburrerako ekintza mugatueterako laguntzak gaindituz eta helburu bakar batekin: oinarrizko beharrei erantzutea, gabezia horiek eragiten dituzten arazoietan eragin gabe. Garapenak egiturazko aldaketak behar ditu, eta lankidetzak ildo horretatik jardun behar du.

Garapen Lankidetzarako Funtzaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretua 2013ko uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuaren bidez aldatu da. Bada, 34/2007 Dekretuaren 2. artikulua dioenez, laguntzak jasotzeko deialdia Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia atxikita dagoen saileko organo eskudunaren ebazpen bidez egingo da, eta ebazpen horretan honako hauek adieraziko dira: deialdiaren xedea, diru-hornidura orokorra, hiru laguntza modalitateetarako aurreikusitako diru-hornidura, entitate bakoitzak gehienez eska dezakeen kopurua, hautaketa-irizpideak, eskaerak aurkezteko tokia eta epea, eta eskaera-eredua. Kasu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuan eta Jaurlaritzaren Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuan aurreikusitakoak batera aplikaturik, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak du eskumen hori.

Bestalde, dekretu horren 22.4 artikulua dioenez, deialdia egiten duen ebazpenean zehaztuko da entitate bakoitzak zenbat eska dezakeen gehienez ere, batera, proiektuetan.

Halaber, 24. artikulua xedatzen duenez, diru-laguntzaren ordainketa bakoitzaren ehunekoak deialdiaren ebazpenean agertuko dira.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak erabakiko du nola kudeatu aipatutako laguntzak eta arlo honetan eman behar diren ebazpenak edo sinatuko diren hitzarmenak. Horretarako, bi lege-xedapen hauek beteko ditu: batetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikulua, eta bestetik,

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikulua.

Azkenik, adierazi behar da deialdi honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren oniritzia jaso zuela 2013ko uztailaren 22an egindako bilkuran. Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuak araututako proiektuetarako laguntzak 2013. urteko ekitaldirako deitzea da. Garapen Lankidetzarako Funtsaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen ditu dekretu horrek. Dekretu hori uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuaren bidez aldatu da.

Bigarren artikulua.– Diru-hornidura.

Deialdi honetara bideratutako diru-zuzkiduraren zenbateko orokorra 10.000.000 eurokoa da. Laguntza-mota bakoitzerako honako diru-zuzkidura hau kalkulatu da:

- a) Garapen-lankidetzako proiektuetarako laguntzak ordaintzeko, 8.200.000 euro bideratuko dira.
- b) Ekoizpen-garapeneko, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuetarako laguntzak ordaintzeko, 500.000 euro bideratuko dira.
- c) Garapenerako hezkuntzarako proiektuetarako laguntzak ordaintzeko, 1.300.000 euro bideratuko dira.

Zenbateko horiek aldatu ahal izango dira, eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan hartuta, eta laguntza horiek ebatzi aurretik, baldin eta beste laguntza-deialdi batzuk gauzatzearen ondorioz amaitu gabeko diru-iturririk badago. Zenbateko berriek errespetatu beharko dituzte Garapen Lankidetzarako Funtsaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuan jasotako laguntza mota bakoitzerako ezarritako mugak, betiere modalitate horietako bakoitzean horretarako behar adina eskabide aurkeztu badira (aipatutako dekretua uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuaren bidez aldatu da). Hala gertatzen bada, EHAAan emango da horren berri, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen baten bidez.

Hirugarren artikulua.– Proiektu bakoitzeko eskatutako diru-laguntza.

Proiektu bakoitzeko ezin izango da 600.000 euro baino laguntza handiagoa eskatu.

Laugarren artikulua.– Entitate bakoitzeko guztira eska daitekeen diru-kopurua.

Erakunde batek ere ezin izango du, ez bere kasa, ez besterekin partzuergoan, 700.000 eurotik gorako diru-laguntzarik eskatu proiektu guztiengatik, aurkezten den laguntza-modalitate guztietan.

Bosgarren artikulua.– Entitate bakoitzeko guztira eska daitekeen diru-kopurua.

Erakunde eskatzaile bakoitzak eskura ditzakeen laguntza-modalitate guztietan gehienez jaso dezakeen diru-kopurua, bai bere kasa, bai besterekin partzuergoan aurkeztuta, 700.000 eurokoa izango da, zenbat proiektutara aurkezten den kontuan hartu gabe.

Seigarren artikulua.– Laguntzak ordaintzea.

Emandako diru-laguntza honako epe hauetan ordainduko da:

a) Lehenengo ordainketa, onartutako diru-laguntzaren % 20koa, diru-laguntza onartu dela dioen ebazpena jakinarazi ondoren.

b) Bigarren ordainketa, onartutako diru-laguntzaren % 40koa, proiektua noraino gauzatu den egiaztatzen duen txostena aurkeztu ondoren. Txosten horretan, dagoeneko ordainduta dagoen diru-laguntzaren % 80 justifikatu beharko da, gutxienez.

c) Hirugarren ordainketa, onartutako diru-laguntzaren % 40koa, proiektua noraino gauzatu den egiaztatzen duen agiri-txostena aurkeztu ondoren. Txosten horretan, dagoeneko ordainduta dagoen diru-laguntzaren % 80 justifikatu beharko da, gutxienez.

Zazpigarren artikulua.– Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea.

Deialdian parte hartzeko eskabideak hilabeteko epean aurkeztu behar dira, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Eskabideak aurkezteko modua:

Eskabideak II. eranskinean modalitate bakoitzerako ezarritako ereduen arabera prestatu beharko dira, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bulegoetan aurkeztuko dira.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

Nafarroa kalea, 2

01007 Vitoria-Gasteiz

Hala ere, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak, 38.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkez daitezke eskabideak.

Posta-bulegoen bidez aurkezten diren eskabideak, ziurtatu aurretik, irekita eman behar zaizkio postako funtzionarioari, hark eguna jarri eta zigilua bota diezaien.

Eskabideak aurkezteko, otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuan bildutako baldintza guztiak esanbidez onartu beharko dira.

Eskabideekin batera, halaber, ebazpenaren II. eranskinean laguntza-mota bakoitzerako eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, bai eta otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 22.3 artikuluan eskatutako dokumentazio berezia ere. Erakunde eskatzaileek eta herri-erakundeek dekretuan eskatutako dokumentaziorik edo proiektuetan eskatutako baldintzak betetzen direla dioen egiaztagiririk aurkeztu ezean, nahiz eta akats hori zuzentzeko eskatzen zaien Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan xedatutakoa betetz, bertan behera geratuko dira proiektuak. Eskabideak aurkezteko epean aurkezten ez bada I. eranskinean aipatutako hautaketa-irizpideen arabera puntuazioa ematen duen dokumentaziorik, dagozkien puntuak ezin izango dira baremazioan sartu.

Zortzigarren artikulua.– Prozeduraren hasiera.

Eskabideak I. eranskineko hautaketa-irizpideen arabera baloratuko dira.

2013ko irailaren 2a, astelehena

Bederatzigarren artikulua.– Hitzarmena sinatzea.

Diru-laguntza onartu ondoren, onartutako diru-laguntzetarako hitzarmen bana sinatu beharko dute Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta erakunde esleipendunak, deialdi honetako III. eranskinean agertzen diren ereduaren arabera, finantzatzen den proiektua nolakoa den kontuan hartuta.

Hamargarren artikulua.– Ebazpen honetan aurreikusi gabeko gai guztietan, otsailaren 27ko 34/2007 Dekretua aplikatuko da, Garapen Lankidetzarako Funtsaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituenak. Dekretu hori 2013ko uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatu du.

AZKEN XEDAPENA.– Ebazpen honek EHAAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarri. Horretarako epea hilabetekoa izango da, ebazpena EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abuztuaren 30a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,
MARÍA ÁNGELES ELORZA ZUBIRÍA.

I. ERANSKINA

HAUTAKETA IRIZPIDEAK

1.– GARAPEN-LANKIDETZARAKO PROIEKTUEI APLIKA DAKIZKIEKEEN HAUTAPEN-IRIZPIDEAK (I. KAPITULUA)

I.– Proiektuaren edukiak eta ikuspuntua kontuan hartuta: 75 puntu.

1.– Proiektuaren koherentzia orokorra: 16 puntu.

1.1.– Xede-populazioaren pobrezari aurre egiteko estrategiari eta Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011 Garapenerako Lankidetzaren Plan Estrategiko eta Zuzendariari begira proiektuak duen garrantzia: gehienez, 4 puntu.

1.2.– Helburuen, emaitzen eta aurreikusitako jardueren arteko koherentzia. Gehienez, 3 puntu.

– 3 puntu, baldin eta parte hartzeko logikak jasotzen baditu helburu espezifikoak lortzeko behar diren jarduerak eta emaitzak.

– Puntu 1, baldin eta parte hartzeko logikak jasotzen ez baditu helburu espezifikoak lortzeko behar diren emaitzak, helburu hori lortzeko behar ez diren emaitzak sartzen badituzte, edo emaitzek eta horiei dagozkien jarduerak koherentziarik ez badute.

1.3.– Jardueren deskribapena, eta jarduera horiek gauzatzeko ezarritako baliabideen eta jardueren artean dagoen harremana: gehienez, 3 puntu.

– 2 puntu, koherentzia badago jardueren, baliabideen eta kostuen artean eta hori aurrekontura eramateko moduaren artean.

– Puntu 1, jardueren eta aurrekontu-zuzkiduraren artean alde handia badago, eta/edo esku-hartzearen logikarako beharrezkoak ez diren kontzeptuak badaude.

– Puntu 1 gehiago, jarduerak behar bezala deskribatuta baldin badaude.

1.4.– Segimendua eta ebaluazioa egiteko adierazle zehatzak, egiaztagarriak eta ebaluagarriak. Gehienez, 5 puntu.

– 5 puntu, baldin eta helburu espezifikoari eta espero izateko emaitzei begira zehatz eta egiaztagarriak diren adierazleak ezartzen badira: prozesu-adierazleak, inpaktu-adierazleak eta genero-inpaktuaren adierazleak, kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak.

– 3 puntu, baldin eta helburu espezifikoari eta espero izateko emaitzei begira zehatz eta egiaztagarriak diren adierazleak ezartzen badira, baina alderdiren bat ondo zehaztu gabe uzten badute.

– 3 puntu, baldin eta espero izateko emaitzei begira zehatz eta egiaztagarriak diren adierazleak ezartzen badira: prozesu-adierazleak, inpaktu-adierazleak eta genero-inpaktuaren adierazleak, kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak.

– Puntu 1, espero izateko emaitzei begira zehatz eta egiaztagarriak diren adierazleak ezartzen badira, baina alderdiren bat ondo zehaztu gabe uzten badute.

1.5.– Proiektua erakunde eskatzailearen Plan Estrategikoaren barruan zuzen eta berariaz sartzea. Gehienez, puntu 1.

– Puntu 1, indarrean dagoen Plan Estrategikoan sartzen bada.

2.– Proiektuaren bideragarritasuna eta iraunkortasuna: 15 puntu.

2.1.– Bideragarritasuna: gehienez, 10 puntu.

– Gehienez, 8 puntu, egiaztatzen bada badaudela proiektua behar bezala ezartzeko beharrezkoak diren baliabide metodologikoak eta teknikoak, baita giza-baliabideak ere.

– Puntu 1 gehiago, proposamena kokatzen bada garapen publiko edo sozialeko plan zabalago batean, behar bezala egiaztatutako plan batean.

– Puntu 1 gehiago, proiektuaren aurrekontuaren % 10 –gutxienez– tokiko ekarpena bada.

2.2.– Iraunkortasuna: gehienez, 5 puntu.

3.– Zeharlerroak: 36 puntu.

3.1.– Zeharkakoa: genero-ikuspegia, kokapenaren aldaketa eta gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna sartzen badira: gehienez, 7 puntu.

3.2.– Zeharkakoa: tokiko ahalmenak sendotzea: gehienez, 7 puntu.

3.3.– Zeharkakoa: parte hartzeko prozesuak sortzea: gehienez, 7 puntu.

3.4.– Zeharkakoa: antolakundea indartzea: gehienez, 5 puntu.

3.5.– Zeharkakoa: eskubideen ikuspegia: gehienez, 5 puntu.

3.6.– Zeharkakoa: iraunkortasun ekologikoa: gehienez, 5 puntu.

4.– Eremu geografikoarekin, sektorialarekin eta proiektu-ereduarekin zerikusia duten alderdiak: 8 puntu.

4.1.– Eremu geografikoa: 3 puntu.

Proiektua honako herri hauetako batean gauzatzen bada: El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua, Mexiko, Brasil, Kuba, Bolivia, Kolonbia, Ekuador, Peru, Venezuela, Boli Kosta, Ruanda, Mozambique, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Angola, Uganda, Burundi, Palestina eta India.

4.2.– Sektoriala: 3 puntu.

Proiektua Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011 Garapenerako Lankidetzaren Plan Estrategiko eta Zuzendarian lehenetsitako sektore batean kokatzen bada.

4.3.– Partzuergoak: gehienez, 2 puntu.

– Puntu 1, proiektua euskal erakundeen partzuergo batek gauzatzen badu.

– Puntu 1, proiektua tokiko erakundeen partzuergo batek gauzatzen badu baterako jarduneko programa baten barruan.

II.– Euskal erakunde eskatzailearekin zerikusia duten alderdiak: 10 puntu.

1.– Oinarri soziala: 3 puntu.

– Puntu 1, EAEn 200 bazkide edo gehiago baditu.

– Puntu 1, EAEn 10 boluntario baino gehiago baditu.

– Puntu 1, jokabide-kodea duen eta segimendu-batzordeak zehatu gabe dagoen koordinakunde edo lankidetzaren sare batekin parte hartzen badu.

2.– Esperientzia: 2 puntu.

– Puntu 1, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean, bost urte edo gehiago badaramatza erakundeak legez eratuta.

– Puntu 1, erakundeak egiaztatzen badu ezen, proiektua kokatzen den sektorean etengabeko lan-esperientzia izan duela, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino bost urte lehenagotik (gutxienez).

3.– Gaitasuna eta kaudimena: gehienez, 2 puntu.

– 2 puntu, erakundeak, azken bost urteetan (eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza horren zenbatekoa eskatutakoa bera edo handiagoa bada, eta behar bezala justifikatuta badago.

– Puntu 1, erakundeak, azken bost urteetan (eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza hori eskatutako zenbatekoaren % 75ekoa edo handiagoa bada, eta behar bezala justifikatuta badago.

4.– Euskal erakundearen eta tokiko erakundearen arteko aurreko harremana: 2 puntu.

– 2 puntu, euskal erakundeak tokiko erakundearekin bost urteko edo gehiagoko lan-esperientzia badu, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

5.– Genero-ikuspegia erakunde mailan sartzea: gehienez, puntu 1.

– Puntu 1, erakundeak genero-berdintasuna lortzeko ekintza-plan estrategiko bat badu.

III.– Tokiko erakundearekin zerikusia duten alderdiak: 15 puntu.

1.– Esperientzia: gehienez, 5 puntu.

– 2 puntu, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean, zortzi urte edo gehiago badaramatza erakundeak legez eratuta.

– 3 puntu, erakundeak egiaztatzen badu ezen, proiektua kokatzen den sektorean etengabeko lan-esperientzia izan duela, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino zortzi urte lehenagotik (gutxienez).

– 2 puntu, erakundeak egiaztatzen badu ezen, proiektua kokatzen den sektorean bost eta zortzi urte bitarteko etengabeko lan-esperientzia izan duela, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago.

2.– Gaitasuna eta kaudimena: gehienez, 2 puntu.

– 2 puntu, erakundeak, azken bost urteetan (eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzalaguntzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza horren zenbatekoa eskatutakoa bera edo handiagoa bada, eta behar bezala justifikatuta badago.

– Puntu 1, erakundeak, azken bost urteetan (eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzalaguntzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza hori eskatutako zenbatekoaren % 75ekoa edo handiagoa bada, eta behar bezala justifikatuta badago.

3.– Tokiko erakundeak xede-populazioarekin duen harremana: gehienez, 4 puntu.

– 4 puntu, tokiko erakundeak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, lau urte baino gehiagoko esperientzia badu xede-populazioarekin, proiektuaren eremu geografikoan.

– 2 puntu, tokiko erakundeak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, bi urte baino gehiagoko lan-esperientzia badu xede-populazioarekin, proiektuaren eremu geografikoan.

4.– Tokiko erakundearen eta xede-populazioaren arteko loturari buruzko ikuspegiak: gehienez, 3 puntu.

– 3 puntu, tokiko erakundearen indarreko Plan Estrategikoak berariaz barne hartzen badu xede-populazioa.

– Puntu 1, tokiko erakundearen indarreko Plan Estrategikoak orokorrean barne hartzen badu xede-populazioa.

5.– Genero-ikuspegia erakunde mailan sartzea: puntu 1.

– Puntu 1, erakundeak genero-berdintasuna lortzeko ekintza-plan estrategiko bat badu.

2.– PRODUKZIO-GARAPENEN ETA ASISTENTZIA TEKNOLOGIKOKO PROIEKTUEI APLIKATZEKO IRIZPIDEAK (II. KAPITULUA)

I.– Proiektuaren edukiak eta ikuspuntua kontuan hartuta: 75 puntu.

1.– Proiektuaren koherentzia orokorra: 16 puntu.

1.1.– Xede-populazioaren pobrezia aurre egiteko estrategiari eta Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011 Garapenerako Lankidetzaren Plan Estrategiko eta Zuzendariari begira proiektuak duen garrantzia: gehienez, 4 puntu.

1.2.– Helburuen, emaitzen eta aurreikusitako jardueren arteko koherentzia. Gehienez, 3 puntu.

– 3 puntu, baldin eta parte hartzeko logikak jasotzen baditu helburu espezifikoak lortzeko behar diren jarduerak eta emaitzak.

– Puntu 1, baldin eta parte hartzeko logikak jasotzen ez baditu helburu espezifikoak lortzeko behar diren emaitzak, helburu hori lortzeko behar ez diren emaitzak sartzen badituzte, edo emaitzek eta horiei dagozkien jarduerak koherentziarik ez badute.

1.3.– Jardueren deskribapena, eta jarduera horiek gauzatzeko ezarritako baliabideen eta jardueren artean dagoen harremana: gehienez, 3 puntu.

– 2 puntu, koherentzia badago jardueren, baliabideen eta kostuen artean eta hori aurrekontura eramateko moduren artean.

– Puntu 1, jardueren eta aurrekontu-zuzkiduraren artean alde handia badago, eta/edo esku-hartzearen logikarako beharrezkoak ez diren kontzeptuak badaude.

– Puntu 1 gehiago, jarduerak behar bezala deskribatuta baldin badaude.

1.4.– Segimendua eta ebaluazioa egiteko adierazle zehatzak, egiaztagarriak eta ebaluagarriak. Gehienez, 5 puntu.

– 5 puntu, baldin eta helburu espezifikoari eta espero izateko emaitzei begira zehatz eta egiaztagarriak diren adierazleak ezartzen badira: prozesu-adierazleak, inpaktu-adierazleak eta genero-inpaktuaren adierazleak, kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak.

– 3 puntu, baldin eta helburu espezifikoari eta espero izateko emaitzei begira zehatz eta egiaztagarriak diren adierazleak ezartzen badira, baina alderdiren bat ondo zehaztu gabe uzten badute.

– 3 puntu, baldin eta espero izateko emaitzei begira zehatz eta egiaztagarriak diren adierazleak ezartzen badira: prozesu-adierazleak, inpaktu-adierazleak eta genero-inpaktuaren adierazleak, kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak.

– Puntu 1, espero izateko emaitzei begira zehatz eta egiaztagarriak diren adierazleak ezartzen badira, baina alderdiren bat ondo zehaztu gabe uzten badute.

1.5.– Proiektua erakunde eskatzailearen Plan Estrategikoaren barruan zuzen eta berriaz sartzea. Gehienez, puntu 1.

– Puntu 1, indarrean dagoen Plan Estrategikoan sartzen bada.

2.– Proiektuaren bideragarritasuna eta iraunkortasuna: 15 puntu.

2.1.– Bideragarritasuna: gehienez, 10 puntu.

– Gehienez, 8 puntu, egiaztatzen bada badaudela proiektua behar bezala ezartzeko beharrezkoak diren baliabide metodologikoak eta teknikoak, baita giza-baliabideak ere.

– Puntu 1 gehiago, proposamena kokatzen bada garapen publiko edo sozialeko plan zabalago batean, behar bezala egiaztatutako plan batean.

– Puntu 1 gehiago, proiektuaren aurrekontuaren % 10 –gutxienez– tokiko ekarpena bada.

2.2.– Iraunkortasuna: gehienez, 5 puntu.

3.– Zeharlerroak: 36 puntu.

3.1.– Zeharkakoa: genero-ikuspegia, kokapenaren aldaketa eta gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna sartzen badira: gehienez, 7 puntu.

3.2.– Zeharkakoa: tokiko ahalmenak sendotzea: gehienez, 7 puntu.

3.3.– Zeharkakoa: parte hartzeko prozesuak sortzea: gehienez, 7 puntu.

3.4.– Zeharkakoa: antolakundea indartzea: gehienez, 5 puntu.

3.5.– Zeharkakoa: eskubideen ikuspegia: gehienez, 5 puntu.

3.6.– Zeharkakoa: iraunkortasun ekologikoa: gehienez, 5 puntu.

4.– Eremu geografikoarekin, sektorialarekin eta proiektu-ereduarekin zerikusia duten alderdiak: 8 puntu.

4.1.– Eremu geografikoa: 3 puntu.

Proiektua honako herri hauetako batean gauzatzen bada: El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua, Mexiko, Brasil, Kuba, Bolivia, Kolonbia, Ekuador, Peru, Venezuela, Boli Kosta, Ruanda, Mozambike, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Angola, Uganda, Burundi, Palestina eta India.

4.2.– Sektoriala: 3 puntu.

Proiektua Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011 Garapenerako Lankidetzaren Plan Estrategiko eta Zuzendarian lehenetsitako sektore batean kokatzen bada.

4.3.– Partzuergoak: gehienez, 2 puntu.

– Puntu 1, proiektua euskal erakundeen partzuergo batek gauzatzen badu.

– Puntu 1, proiektua tokiko erakundeen partzuergo batek gauzatzen badu baterako jarduneko programa baten barruan.

II.– Euskal erakunde eskatzailearekin zerikusia duten alderdiak: 10 puntu.

1.– Esperientzia: 3 puntu.

– 3 puntu, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean, bost urte edo gehiago badaramatza erakundeak legez eratuta.

– 2 puntu, erakundeak egiaztatzen badu ezen, proiektua kokatzen den sektorean etengabeko lan-esperientzia izan duela, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino bost urte lehenagotik (gutxienez).

2.– Gaitasuna eta kaudimena: gehienez, 2 puntu.

– 2 puntu, erakundeak, azken bost urteetan (eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzeta-laguntzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza horren zenbatekoa eskatutakoa bera edo handiagoa bada, eta behar bezala justifikatuta badago.

– Puntu 1, erakundeak, azken bost urteetan (eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzeta-laguntzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza hori eskatutako zenbatekoaren % 75ekoa edo handiagoa bada, eta behar bezala justifikatuta badago.

3.– Euskal erakundearen eta tokiko erakundearen arteko aurreko harremana: 4 puntu.

– 4 puntu, euskal erakundeak tokiko erakundearekin bost urteko edo gehiagoko lan-esperientzia badu, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

– 2 puntu, euskal erakundeak tokiko erakundearekin hiru eta bost urte arteko lan-esperientzia badu, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

– Puntu 1, euskal erakundeak tokiko erakundearekin bi eta hiru urte arteko lan-esperientzia badu, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

4.– Genero-ikuspegia erakunde mailan sartzea: gehienez, puntu 1.

– Puntu 1, erakundeak genero-berdintasuna lortzeko ekintza-plan estrategiko bat badu.

III.– Tokiko erakundearekin zerikusia duten alderdiak: 15 puntu.

1.– Esperientzia: gehienez, 5 puntu.

– 2 puntu, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean, zortzi urte edo gehiago badaramatza erakundeak legez eratuta.

– 3 puntu, erakundeak egiaztatzen badu ezen, proiektua kokatzen den sektorean etengabeko lan-esperientzia izan duela, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino zortzi urte lehenagotik (gutxienez).

– 2 puntu, erakundeak egiaztatzen badu ezen, proiektua kokatzen den sektorean bost eta zortzi urte bitarteko etengabeko lan-esperientzia izan duela, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago.

2.– Gaitasuna eta kaudimena: gehienez, 2 puntu.

– 2 puntu, erakundeak, azken bost urteetan (eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzeta-laguntzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza horren zenbatekoa eskatutakoa bera edo handiagoa, eta behar bezala justifikatuta badago.

– Puntu 1, erakundeak, azken bost urteetan (eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzeta-laguntzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza hori eskatutako zenbatekoaren % 75ekoa edo handiagoa bada, eta behar bezala justifikatuta badago.

3.– Tokiko erakundeak xede-populazioarekin duen harremana: gehienez, 4 puntu.

– 4 puntu, tokiko erakundeak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, lau urte baino gehiagoko esperientzia badu xede-populazioarekin, proiektuaren eremu geografikoan.

– 2 puntu, tokiko erakundeak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, bi urte baino gehiagoko lan-esperientzia badu xede-populazioarekin, proiektuaren eremu geografikoan.

4.– Tokiko erakundearen eta xede-populazioaren arteko loturari buruzko ikuspegiak: gehienez, 3 puntu.

– 3 puntu, tokiko erakundearen indarreko Plan Estrategikoak berriaz barne hartzen badu xede-populazioa.

– Puntu 1, tokiko erakundearen indarreko Plan Estrategikoak orokorrean barne hartzen badu xede-populazioa.

5.– Genero-ikuspegia erakunde mailan sartzea: puntu 1.

– Puntu 1, erakundeak genero-berdintasuna lortzeko ekintza-plan estrategiko bat badu.

3.– GARAPEN-HEZKUNTZARAKO PROIEKTUEI APLIKA DAKIZKIEKEEN HAUTAPEN-IRIZPIDEAK (III. KAPITULUA)

I.– Proiektuaren diseinua deialdiari zenbat egokitzen zaion kontuan hartuta (26 puntu)

1.– Helburuen, emaitzen eta aurreikusitako jardueren arteko koherentzia: gehienez, 3 puntu.

2.– Jarduera, baliabide eta kostuen arteko lotura egokia: gehienez, 3 puntu.

3.– Xede-populazioari, gaiari eta proposamen-motari begira proiektuak duen garrantzia: gehienez, 5 puntu.

4.– Proiektuan erabilitako prozedurak koherenteak dira deialdian lehentasunezko hartutakoekin: gehienez, 3 puntu.

5.– Xede-populazioa koherentea da deialdian lehentasunezko hartutakoekin: 4 puntu.

5.1.– Proiektuaren xede-populazioa gehienbat lehentasunezko kolektiboetako kideek osatzen dute: 2 puntu.

5.2.– Proposamenen xede-populazioa EAEko hiriburuak ez diren udalerrietan bizi diren pertsonak eta kolektiboek osatzen badute gehienbat: puntu 1 gehiago.

5.3.– Euskal gizartean baztertuta dauden kolektiboak hartzaile gisa barne hartzen baditu: bestelako gaitasun-mailak dituzten pertsonak, espetxeratutakoak, adingabe arau-hausleak, gutxiengo etnikoak, eta abar: puntu 1 gehiago.

6.– Proiektuan lehentasuna ematen zaien gaiak koherenteak dira deialdian lehentasunezko hartutakoekin: gehienez, 4 puntu.

6.1.– Dekretu arautzaileak 17.1.f) artikuluan lehentasunezko hartutako gairen bat bada: 2 puntu.

6.2.– Horrez gain, proposamenaren esparruan genero-ekitatearekin erlazionatutako gaiak berriaz sartzan badira. 2 puntu gehiago.

7.– Proiektua erakunde eskatzailearen Garapenerako Hezkuntza Plan Estrategikoaren barnean hartuta dago: 2 puntu.

8.– Irabazi-asmorik gabeko erakundearen eta lehentasunezko kolektiboaren erakundearen arteko partzuergoa da: 2 puntu.

II.– Proiektuaren bideragarritasunaren arabera (15 puntu).

1.– Erakunde eskatzaileak esperientzia badu: gehienez, 2 puntu.

1.1.– Puntu 1, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean, bost urte edo gehiago badaramatza erakundeak legez eraturik.

1.2.– Proiektuaren sektorean gutxienez hiru urteko etengabeko lan-esperientzia egonkorra egiaztatzen badu, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean: puntu 1.

2.– Gaitasuna eta kaudimena: gehienez, 2 puntu.

2.1.– Erakundeak, azken bost urteetan (eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzeta-laguntzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza horren zenbatekoa eskatutakoa bera edo handiagoa, eta behar bezala justifikatuta badago: 2 puntu.

2.2.– Erakundeak, azken bost urteetan (eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte), Eusko Jaurlaritzak edo Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako lankidetzeta-laguntzaren bat kudeatu badu, betiere, laguntza hori eskatutako zenbatekoaren % 75ekoa edo handiagoa bada, eta behar bezala justifikatuta badago: puntu 1.

3.– Proiektua egikaritzen duten pertsonen prestakuntza egokia: gehienez, 2 puntu.

3.1.– Proiektua diseinatzen eta errazten duten pertsonen proiekturako prestakuntza akademiko egokia badute eta curriculum vitae gaineratzen badute: puntu 1.

3.2.– Esparru horretan esperientzia profesionala badute eta azalpen-memoria gaineratzen bada: puntu 1.

4.– Proiektuari ekin aurretik diagnostiko bat egin bada: gehienez, 2 puntu.

5.– Landutako gaiari buruzko alde aurreko ikerketa egin da: 2 puntu.

6.– Segimendu eta ebaluaziorako adierazle-sistema: gehienez, 5 puntu.

6.1.– Helburu espezifikoetara eta espero izateko emaitzei begira zehatz eta egiaztagarriak diren adierazleak ezartzen badira: 2 puntu.

6.2.– Helburuaren adierazleak oinarrizko lerro espezifiko batetik eratzten badira. 2 puntu.

6.3.– Ebaluazio-adierazleak proiektuaren genero-inpaktua identifikatzeko moduan eraikita badaude: puntu 1 gehiago.

III.– Dimentsio politikoaren arabera (13 puntu).

1.– Inplikaturako pertsonen parte-hartzea eta mobilizazioa eskatzen duten ekintza zehatzak: gehienez, 3 puntu.

1.1.– Proiektuaren betearazpen- eta ebaluazio-faseetan xede-populazioaren parte-hartze aktiboa eta zuhurra errazteko estrategiak diseinatzen badira: puntu 1.

1.2.– Mugimendu politikoetan eta gizarte-mugimenduetan indibidualki edo kolektiboki parte hartzeko, xede-populazioaren antolaketa-gaitasunak indartzera bideratutako ekintzak sustatzen badira: puntu 1.

1.3.– Proiektuak xede-populazioaren gizarte-mobilizaziorako ekintza zehatzak biltzen baditu: puntu 1.

2.– Eragin politikoa: gehienez, 2 puntu.

2.1.– Proposamena erakunde eskatzailearen zaintza-estrategiaren edo eragin politikoaren barruan badago. puntu 1.

2.2.– Proposamena erakunde eskatzailearen edo burutuko den guneko bere bazkideen lankidetzaren proiektu edo -ildoekin erlazionatuta badago eta horiei buruzko hedapen- eta sentsibilizazio-plataforma gisa baliagarria bada: puntu 1.

3.– Giza Garapen Iraunkorraren marko teorikoa erabiltzen da, eta erlazio bat dago landutako garapen-gaiaren eta gure gizartean dagokionaren artean: puntu 1.

4.– Proiektua sarean toki, estatu edo nazioarte mailan egindako kanpaina handiagoen barruan dago: gehienez, 2 puntu.

4.1.– Proiektua erakundearen sare edo artikulazio baten kanpaina edo lan-planen baten dokumentu estrategiko batean bilduta badago: puntu 1.

4.2.– Erakundeak helburu espezifikoak lantzen duen gaiarekin bat datozen sare, aliantza edo federazioen kide dela egiaztatzen duten kanpo-frogagiriak aurkezten baditu: puntu 1.

5.– Proiektuak aukera ematen du boluntarioek parte har dezaten dituen faseetan: gehienez, 3 puntu.

5.1.– Fase guztietan boluntarioek parte hartzeko aukera ematen badu: 2 puntu.

5.2.– Erakundeak Boluntariotzaren Euskal Erroldan erregistratuta badago: puntu 1 gehiago.

6.– Irisgarritasun orokorra produzitzen diren produktu eta materialetara: puntu 1.

7.– Toki-mailako gizarte-dinamizazioan inplikatzeko, lagundu dezaketen tokiko agenteekin batera (gizarte-etxeak, auzo-elkarteak, gazteria-zerbitzuak, ...): puntu 1.

IV.– Kulturarteko dimentsioaren arabera (9 puntu).

1.– Kultura desberdinen arteko bizikidetzaguneak sortzea aurreikusten da: gehienez, 2 puntu.

1.1.– EAEn dauden kolektibo eta kultura desberdinen identitate pertsonal eta komunitarioa indartzera bideratutako hezkuntza-teknologiak erabiltzen badira: puntu 1.

1.2.– Kulturen arte-adierazpenetara (literatura, musika, dantza, eta abar) jotzea sustatzen bada, garapenerako hezkuntzako tresna gisa: puntu 1.

2.– Proiektuak Hegoaldeko eta EAEko erakundearen artean elkar ezagutzeko eta trukeak egiteko erlazioak sustatzen eta indartzen baditu: gehienez, 2 puntu.

3.– Kulturartekotasunaren dimentsio politikoa sustatzen du: gehienez, 2 puntu.

3.1.– Proposamenak euskal gizarte kulturartekoa, eleaniztuna eta ekumenikoaren eraketa sustatzera bideratutako sentsibilizazio-ekintzak barne hartzen baditu: puntu 1.

3.2.– Proposamenak herrien kultura-balioak kontserbatzea eta horiei eustea eta kulturen arteko diferentziak errespetatzea garrantzitsua dela azpimarratzen bada: puntu 1.

4.– EAEko bi hizkuntza ofizialen erabileraren erabateko egokitzapena kontuan hartzen bada: gehienez, 3 puntu.

4.1.– Sentsibilizazio-jardueretan, jardunaldietan, kongresuetan eta abar aldibereko itzulpen elebiduna barne hartzen bada: puntu 1.

4.2.– Proiektuaren baitan landutako komunikazio-material eta -euskarri guztien produkzio elebiduna bermatzen bada (ikus-entzunezkoak, irudiak eta abar barne): puntu 1.

4.3.– Hegoaldean egin eta EAEn erabili eta hedatzeko diren lehentasunezko edo erabilgarritasun handiko gaiei buruzko material eta dokumentu garrantzitsuak euskarara itzultzen badira: puntu 1.

V.– Dimentsio pedagogikoaren arabera (15 puntu).

1.– Garapenaren zeharlerroak barne hartzen dituen ikuspegi pedagogikoa: gehienez, 5 puntu.

1.1.– Gatazken kudeaketa eta konponketaren ikaskuntzaren aldeko apustua egiten duen ikuspegi pedagogikoa proposatzen bada: puntu 1.

1.2.– Giza Eskubideen ikuspegia proposatzen bada, giza eskubideak giza herri guztientzako garapen zuzenagoa eta orekatuagoa lortzeko funtsezko ardatza direla azpimarratzen bada: puntu 1.

1.3.– Egungo produkzio eta kontsumoko ereduakiko Ikuspegi kritikoa proposatzen bada, beste garapen-eredu alternatibo batzuk berreskuratzeko eta indartzeko: puntu 1.

1.4.– Modu komunean eta berdintasunean hezteko aukera ematen duen hezkidetzak ikuspegi bat proposatzen bada, xede-populazioaren maskulinoari eta femeninoari lotutako estereotipoak detektatuz eta gaindituz: puntu 1.

1.5.– Aurreko ikuspegiak barne hartzen dituzten hezkuntza-proposamenak lantzeko irakasleen, hezitzaileen edo beste hezkuntza-agente batzuen trebakuntza aurreikusten bada: puntu 1 gehiago.

2.– Hezkuntza-metodologia emantzipatzaileak: gehienez, 4 puntu.

2.1.– Metodologia pedagogikoa gizarte-ekintzako printzipio bat barne hartzen badu, eta horrek prestakuntza eta gizarte-ekintza lotzen dituzten estrategien bilaketa kooperatiboa, trukea eta ahalduntzerako estrategiak bultzatzeko apustua egiten badu: 2 puntu.

2.2.– Proiektuaren helburua lortzeko parte-hartzerako metodologiak eta/edo ikerketa eta ekintzako tresnak barne hartzen badira: puntu 1.

2.3.– Eremu ez-formaletan eta aisia eta astialdiko eremuetan Garapenerako Hezkuntza lantzerantz bideratutako hezkuntza-proposamenak egiten badira, hezkuntza- eta gizarte-agenteen artean aliantzak ezarriz, hezkuntza-ekintzari eta gizarte-mobilizazioari zentzua eta batasuna emateko: puntu 1.

3.– Hezkuntza-agenteen arteko lankidetzak sustatzea: gehienez, 2 puntu.

3.1.– Proiektuak hezkuntza-zentroak eta agenteak harremanetan jartzen baditu garapenerako Hezkuntzan berrikuntza-esperientziak bultzatzeko: puntu 1.

3.2.– Proiektuak aurreikusten badu irakasleen eta GGKEen talde mistoek landutako material didaktikoa eta baliabide pedagogikoa sortzea. Atal horretan barne hartzen da materialen sorkuntza formatu elektronikoan eta/edo multimedia formatuan, Interneten bitartez eskuragarri egon daitezkeenak; ikus-entzunezkoak, ...: puntu 1.

4.– Xede-populazioarenagana, baldintzetara eta testuingurura, eta parte-hartzaileen interesetara egokitutako metodoa eta hedapen-sistemak erabiltzen dira: 2 puntu.

5.– Proiektuaren inpaktuen iraunkortasuna ziurtatuko duen jarraikortasun-estrategia bat proposatzen da, parte hartzen duen biztanleriaren edo kolektiboaren gaitasunak indartzearen bitartez: 2 puntu.

VI.– Genero-ikuspegiaren zeharkakotasunaren arabera (11 puntu).

1.– Genero-ikuspegia proiektuaren logikan sartzea: gehienez, 2 puntu.

1.1.– Proiektuak emakumeek eta gizonek proiektuaren eremuan duten izaera eta posizio desberdinari buruzko azterketa on bat aurkezten badu, konpondu nahi dituen genero-desberdintasunak identifikatzen baditu, sexuaren arabera banandutako informazioa barne hartzen badu, baita proiektua landuko den eremuaren barruan baliabideen sarbide eta kontrol diferentziala ere; eta gizonen eta emakumeen premiak eta interesak identifikatzen baditu: puntu 1.

1.2.– Proiektuaren logikan genero-berdintasunerako asmoa argi eta garbi ikusten bada: helburua, emaitzak eta jarduerak, baita horien segimendurako adierazleak ere: puntu 1.

2.– Emakumeak eta horien erakundeak garapenaren subjektu protagonista bezala ikustea: gehienez, 2 puntu.

2.1.– Proiektuaren burutzapenean zehar emakumeek garapenean betetzen duten papera ikustea bermatzen duten baliabide materialak eta giza baliabideak zehazten badira: puntu 1.

2.2.– Hegoaldean nahiz Iparraldean emakumeen ahalordetze-prozesuak ikusi eta indartzeko ekintzak diseinatzen badira: puntu 1.

3.– Generoa Garapenean (GED) txertatzeko aukera bultzatzea: gehienez, 2 puntu.

3.1.– Xede-populazioan Generoa Garapenean ikuspegia txertatzeko prestakuntza- edo truke-ekintzak proposatzen badira: puntu 1.

3.2.– Xede-populazioan garapen-lankidetzarako proiektuen jardun-ildo gisa emakumeen ahalordetzeari buruzko prestakuntza- edo truke-ekintzak proposatzen badira: puntu 1.

4.– Emakumeen eta beren erakundeen parte-hartzea sustatzea: gehienez, 2 puntu.

4.1.– Tresna zehatzak ezartzen badira (besteak beste, kuotak, ekintza positiboak), emakumeek eta gizonek berdinduta parte hartzen proiektuaren ekintzetan: puntu 1.

4.2.– Proiektuaren jardueretan emakumeen erakundeek eta erakunde feministek parte hartzen badute: puntu 1.

5.– Idatzizko materialetan eta gainerako euskarrietan egindako mezu eta irudietan hizkuntza barne-hartzailea erabiliko dela bermatzen bada: puntu 1.

6.– Genero-ikuspegia erakunde mailan sartzea: puntu 1.

7.– Justizian, ekitatean eta berdintasunean oinarritutako maskulinitaterako hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak barne hartzen badira: puntu 1.

VII.– Hegoaldeko ikuspegiaren birbalorizazioaren arabera (11 puntu).

1.– Proiektuaren prozesu osoan Hegoaldeko Ikuspegia transmititzen duten giza baliabideek parte hartzen dute eta/edo materialak erabiltzen dira: gehienez, 4 puntu.

1.1.– Hegoaldeko herrialdeetako erakundeek edo pertsonak lehentasunezko gaiei buruz egindako esperientziak, sistematizazioak edo ikerketak hedatzen badira: 2 puntu.

1.2.– Garatutako jardueretan hegoaldeko erakundeen eta pertsonen protagonismoa bultzatzen bada: 2 puntu.

2.– Herri eta herrialde pobretuei buruzko imaginario kolektiboa eta estereotipo negatiboak eraldatzea: gehienez, 5 puntu.

2.1.– Hegoaldeari buruzko imaginario kolektiboa eratzeko moduari buruzko azterketa-jarduerak txertatzen badira eta sistema baztertzailaren mantentzean betetzen duten paperari buruzko hausnarketa egiten bada: 2 puntu.

2.2.– Hegoaldeari buruzko imaginario kolektiboa eraldatzeko eta hobetzeko sentsibilizazio-kanpainak egiten badira: 2 puntu.

2.3.– Honako hauek neurtzeko emaitzak eta adierazleak diseinatzen badira: jarrera-aldaketak, partaidetza- edo ordezkari-taldek banatzea, parte hartzen duen kolektiboak/biztanleriak hegoaldeko kolektiboetara/biztanleei buruz duen diskurtsoa edo jarduera aldatzea: puntu 1 gehiago.

3.– Proiektuaren exekuzioan etorkinen erakundeek eta bestelako talde etniko minoritarioek parte hartzea: gehienez, 2 puntu.

3.1.– Proiektuaren exekuzioan etorkinen elkarten parte-hartzea barne hartzen bada: puntu 1.

3.2.– Proiektuaren formulazioak proposatzen badu parte-hartze aktiboko guneen sorkuntza, iparraldean baztertutako, diskriminatutako edo estigmatizatutako etorkinak ez diren kolektibo etnikoen parte-hartze aktiborako: puntu 1.

2013ko irailaren 2a, astelehena

II. ERANSKINA

ESKABIDE-EREDUA ETA DOKUMENTAZIOA

1.– GARAPEN-LANKIDETZARAKO PROIEKTUETARAKO ETA EKOIZPEN-GARAPENERAKO ETA LAGUNTZA TEKNOLOGIKORAKO PROIEKTUETARAKO LAGUNTZA-ESKABIDEA (I. ETA II. KAPITULUAK).

ESKABIDE-KARATULA:

Erakunde eskatzailea:

Proiektuaren izenburua:

Deialdia:

Data (urtea/hilabetea/eguna):

Kapitulua:

Jardun-sektorea (CAD):

Jardun-sektorea (Plan Zuzentzailea 2008-2011):

Markatu laukitxo hau, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bidaliko dizkizun jakinarazpenak eskabidean adierazitako posta elektronikoaren helbidean jaso nahi izanez gero.

INFORMAZIO OROKORRA – PROIEKTUA AURKEZTEKO DATUAK:

Proiektuaren izenburua (hamar hitz gehienez):

Herrialdea/Eremu geografikoa:

Erakunde eskatzailea (izen ofiziala):

(erantsi dokumentazioa/informazioa eranskinetako I. atalean).

Partzuergoen kasuan, lehenbizi adierazi zein den partzuergo-burua eta, ondoren, zein diren partzuergoa osatzen duten gainerako erakundeak

Helbidea/Erakundearen egoitza:

Telefonoa/Faxa:

Posta elektronikoa:

IFZ:

Eratze-data:

Izaera juridikoa:

EAEko ahalduna:

Kargua:

Eskuz idatzitako sinadura, eskaeraren ardura eta eranskinetan adierazitako dokumentazioaren benetakotasuna bere gain hartzen duela adierazteko:

Harremanetarako pertsona (izena, telefonoa eta posta elektronikoko helbidea):

Tokiko bazkidea herrialde hartzailean (izen ofiziala):

(erantsi dokumentazioa/informazioa eranskinetako II. atalean).

Partzuergoen kasuan, lehenbizi adierazi zein den partzuergo-burua eta, ondoren, zein diren partzuergoa osatzen duten gainerako erakundeak

Helbidea/Erakundearen egoitza:

Telefonoa/Faxa:

Posta elektronikoa:

Eratze-eguna:

Izaera juridikoa:

Ahalduna:

Kargua:

2013ko irailaren 2a, astelehena

IRAUNALDIA:

Aurreikusitako hasiera-data (urtea/hilabetea/eguna):

Aurreikusitako amaiera-data (urtea/hilabetea/eguna):

Gauzatzeko aldia, guztira (hilabeteak):

FINANTZIAZIOA, GUZTIRA:

Kostua, guztira:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari eskatutako ekarpena:

- (*) Partzuergoen kasuan, adierazi zenbatekoa den guztira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari eskatu zaion diru-laguntza, partzuergoko erakundeek kudeatu beharrekoa:
- Zenbatekoa da partzuergoko erakunde-buruak kudeatu beharreko diru-laguntza (euroak):
 - Sartu lerro bat partzuergoko buru ez den erakunde bakoitzeko, eta adierazi zenbatekoa den kudeatu behar duten diru-laguntza (euroak):

Tokiko moneta eurotara bihurtzeko erabilitako kanbio-tasa:

Emandako edo eskatutako beste ekarpen batzuk (zehaztu):

| | Emandakoa/eskuragarri | Eskatutakoa |
|---|-----------------------|-------------|
| Euskal erakunde eskatzailea: | | |
| Tokiko gizarte-erakundea: | | |
| Xede-populazioa: | | |
| Bestelako ekarpenak (sartu lerro bat kofinanzazio-iturri bakoitzeko): | | |
| Beste ekarpen batzuk: | | |

INFORMAZIO TEKNIKOA:

1.– PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN LABURRA (deskribatu, 5-10 lerrotan, proiektuaren edukia, daturik garrantzitsuenak adierazita).

2.– KOKAPEN ZEHATZA (erantsi eskualdeko mapa(k) eranskinetako III. atalean, eta zehaztu proiektuaren kokapena).

3.– TESTUINGURUA, AURREKARIAK ETA JUSTIFIKAZIOA.

3.1.– Testuingurua (adierazi, besteak beste, esparru geografikoa, ezaugarri sozioekonomikoak, biztanleria, genero-harremanen egoera, tokiko ahalmenak, parte-hartzea, antolamendua, eskubideen gaineko ikuspegia eta jasangarritasun ekologikoa, hain zuzen ere proiektuaren esparrua zehatzago dokumentatzeko, batez ere proiektuaren xedearekin zerikusia duten alderdiei dagokienez. Informazio gehiago nahi izanez gero, erabili eranskinetako IV. atala).

3.2.– Aurrekariak (azaldu honako alderdi hauek: ekimenaren jatorria; diagnostikoa eta aurretiazko azterlanak; gizonen eta emakumeen egoeren arteko desberdintasunei buruzko analisia; tokiko erakundeari buruzko informazioa; partzuergoa eratu beharra; euskal erakundeak tokiko erakundearekin eta tokiko eta nazioarteko erakundeekin duen harremana; azaldu GGKE eskatzailearen eta/edo tokiko erakundearen epe ertainerako eta luzerako plan estrategikoa; eremu horretan egindako antzeko beste ekimen edo proiektu batzuk, eta ekimena gauzatzeko koordinazioa eta abar. Informazio osagarria eranskinetako IV. atalari erantsiko zaio).

3.3.– Justifikazioa (proiektua proposatzera bultzatu duten arrazoiak, proiektua xede-populazioarentzat egokia ote den, eta pobrezari aurre egiteko estrategia zein den, zein estrategia jarraituko den. Azaldu, labur-labur, zein estrategia erabiliko diren zehar-lerro bakoitzaren inguruan. Informazio osagarria eranskinetako IV. atalari erantsiko zaio).

4.– ESKU-HARTZEAREN LOGIKA. Hurrengo azpiataletan, adierazi koherentziaz proiektua gauzatzeko modua, eta arrazoitu honako sekuentzia hau: giza baliabideen eta baliabide tekniko eta/edo materialen erabilera; aurreikusitako jardueren gauzatzea; emaitzen lorpena; proiektuaren xede espezifikoaren lorpena; xede orokorra lortzeko ekarpena.

Eranskinetako V. atalari Proiektuaren Planifikazio Matrizea (PPM) erantsiko zaio. PPM horretan, labur-labur azalduko dira kontzeptu horiek, adierazleekin, egiaztapen-iturriekin, hipotesiekin eta kanpoko faktoreekin batera.

4.1.– Helburu orokorra (deskribatu proiektua gauzatzeko lortu nahi den helburu zabalena).

4.2.– Proiektuaren helburu espezifikoa.

4.2.1.– Helburu espezifikoa (deskribatu nolako eragina lortu nahi den giza garapen jasangarriaren arloan).

4.2.2.– Helburu espezifikoaren lortze-mailaren adierazleak (deskribatu prozesu- eta eragin-adierazle zehatz, egiaztagarri eta neurgarriak, kantitateari edo nolakotasunari, denborari eta xede-populazioari dagozkien datuekin, helburu espezifikoa lortzen egiaz lagundu ote den egiaztatzeko). Proiektuaren genero-eragina neurtzeko adierazleak, bai emakumeen berariazko egoeran, bai bi genero-desberdintasunaren harremanetan).

4.2.3.– Adierazleak egiaztatzeko iturriak (zehaztu nolako egiaztapen-iturriak erabiliko diren adierazleak zenbateraino betetzen diren egiaztatzeko: inkestak, zuzeneko behaketa, agerkariak... – egiaztatu egingo da, halaber, adierazleak zenbateraino bete diren).

4.2.4.– Kanpoko faktoreak edo hipotesiak (deskribatu aintzat hartu beharreko hipotesiak edo kanpoko faktoreak, betiere proiektuaren kontrol zuzenetik kanpokoak izanik, gertatzeko aukera handia badute eta, kasuak kasu, proiektuak arrakasta izatean eragin erabakigarria izan badezakete). Proiektuaren mesederako direnak aipatu behar dira.

4.3.– Espero diren emaitzak.

4.3.1.– Espero diren emaitzak: deskribatu egingo da nolako produktu eta zerbitzuak lortuko diren proiektua gauzatuta eta egindako jardueren ondorioz, hau da, helburu espezifikoak lortzen lagunduko duten nolako produktu eta zerbitzuak.

4.3.2.– Emaizten lortze-mailaren adierazleak (deskribatu adierazle zehatz, egiaztagarri eta neurgarriak, prozesu-adierazleak eta eragin-adierazleak, kantitateari edo nolakotasunari, denborari eta xede-populazioari dagozkien datuekin, aurreikusitako emaitzak lortzen egiaz lagundu ote den egiaztatzeko). Proiektuaren genero-eragina neurtzeko adierazleak, bai emakumeen berariazko egoeran, bai genero-desberdintasunaren harremanetan).

4.3.3.– Adierazleak egiaztatzeko iturriak (zehaztu nolako egiaztapen-iturriak erabiliko diren adierazleak zenbateraino bete diren egiaztatzeko: inkestak, zuzeneko behaketa, agerkariak eta abar).

4.3.4.– Kanpoko faktoreak edo hipotesiak (emaitzak lortu eta gero, helburura iristeko beharrezkoak diren proiektuaz kanpoko baldintzak deskribatuko dira).

4.4.– Aurreikusitako jarduerak (zehatz deskribatuko dira emaitzak lortzeko aurreikusi diren jarduerak, eta adierazi ekintza bakoitzerako beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak eta materialak. Eranskinetako VI. atalean, aurrekontua jasoko da, jardueren arabera banakatuta).

5.– XEDE-POPULAZIOAREN PARTE-HARTZEA.

5.1.– Xede-populazioa identifikatzea (sexuaren arabera bereizita): kopurua, gizarte-taldea, etnia eta abar.

5.2.– Xede-populazioa aukeratzeko irizpideak. Hala badagokio, deskribatu emakumeen eta gizonen gizarteratzea bultzatzeko ekintza positiboak.

5.3.– Proiektuaren zein fasetan eta nola hartzen duen parte xede-populazioak. Arreta berezia eskainiko zaio emakumeek proiektuan duten parte-hartzeari.

6.– JARDUEREN KRONOGRAMA (4.4 atalean deskribatutako jarduerak lehenengo zutabearen adierazita daude. X batez adieraziko da jarduera gauzatzeko aurreikusitako epea).

| Urteak | 1.a | | 2.a | |
|-------------|-----|-----|-----|-----|
| | 1.a | 2.a | 1.a | 2.a |
| Seihilekoa | | | | |
| Emitzak (1) | | | | |
| Jarduerak | | | | |
| | | | | |
| Emitza... | | | | |
| Jarduerak | | | | |

2013ko irailaren 2a, astelehena

7.- PROIEKTUAREN AURREKONTUA ETA FINANTZAKETA. BATERAKO FINANTZATZAILEEN ARABERAKO BANAKAPENA (eranskinetako VI. atalean aurrekontu-partida bakoitzerako aurreikusitako kostua banakatuko da, baterako finantzatzaileak zehaztuta. Gainera, aurrekontu bat ere aurkeztuko da, jardueren arabera banakatuta).

| PARTIDAK | Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia | Euskal erakunde eskatzailea | Tokiko erakundea eta onuradunak | Beste ekarpen batzuk | GUZTIRA |
|--|--|-----------------------------|---------------------------------|----------------------|---------|
| ZUZENEKO KOSTUAK | | | | | |
| A.I.- Lursailak eta/edo eraikinak | | | | | |
| A.II.- Eraikitzea | | | | | |
| A.III.- Ekipoak eta materialak | | | | | |
| A.IV.- Tokiko langileak | | | | | |
| A.V.- Atzerrian diren langileak | | | | | |
| A.VI.- Gaikuntza eta prestakuntza | | | | | |
| A.VII.- Errotazio-funtsa | | | | | |
| A.VIII.- Funtzionamendu-ekipoak, -materialak eta suntsigarriak | | | | | |
| A.IX.- Ebaluazioa | | | | | |
| ZUZENEKO KOSTUAK, GUZTIRA | | | | | |
| ZEHARKAKO KOSTUAK | | | Ez | Ez | |
| Erakunde eskatzailearen administrazio-gastuak | | | Ez | Ez | |
| ZEHARKAKO KOSTUAK, GUZTIRA | | | | | |
| GUZTIRA, ORO HAR (EUROTAN) | | | | | |
| Guztizko kostuen gaineko ehunekoa | | | | | |

8.– BIDERAGARRITASUNARI ETA IRAUNKORTASUNARI BURUZKO AZTERKETA (kanpoko laguntza amaitu ondoren proiektuaren jarraipena bermatuko duten faktoreak; eranskinetako VII. atalari erantsiko zaizkio beharrezko diren sostengu-agiriak).

8.1.– Abiarazitako jardueren bideragarritasun teknikoa (Giza baliabideak, baliabide materialak eta metodologikoak. Bideragarritasuna indartzen duten azterlanak eta analisiak: prestakuntza-planak, material didaktikoak, langileen profila eta egokitasuna, planoak, administrazio-lizentziak, ikerketak, eta abar).

8.2.– Bideragarritasun ekonomikoa (produkzio-proiektuetarako soilik: produkzioari eta merkatuari buruzko azterlanak. Errotazio-funtsik izanez gero, azalpen-memoria bat jasoko da eranskinetako VII. atalean).

8.3.– Erakunde-bideragarritasuna (proiektua gauzatzeko egokiak diren agintari publikoen, tradizionalen eta/edo bestelako erakunde adierazgarrien sostengua).

8.4.– Helburuaren eta emaitzen iraunkortasuna, baliabideen kudeaketa eta lortutako konpromisoak.

9.– ZEHARKAKO ILDOAK (Hasitako edozein ekintzari aplikatzekoak zaizkion azterketa-aldaerak. Estrategia guztietan erabiliko dira, analisi eta diagnostikotik hasita ebaluazioraino. Aldaera horien aplikazio-maila aldatu daiteke, testuinguruaren, xede-populazioaren egoeraren eta proiektu-motaren arabera, baina epe luzeko prozesu estrategiko baten parte izango dira, non zeharkako ildoak eurak helburu izango diren).

9.1.– Genero-ikuspegia (genero-desberdintasunak gutxitzeko eta/edo emakumeak ahalduzko estrategiak; estrategiak lotu egingo dira diagnostikoarekin, helburuekin, adierazleekin, parte-hartzea sustatzeko ekintza positiboekin, planteatutako baliabideekin eta, hala behar izanez gero, ebaluazioarekin).

9.2.– Tokiko ahalmenak (Estrategien xedea da xede-populazioaren eta haren erakundeen ahalmenak modu integralean sendotzea –ahalmen teknikoak, administratiboak, politikoak, instituzionalak, metodologiako eta finantzarioak–; bestalde, estrategiak lotu egingo dira diagnostikoarekin, helburuekin, adierazleekin, parte-hartzea sustatzeko ekintza positiboekin, planteatutako baliabideekin eta, hala behar izanez gero, ebaluazioarekin).

9.3.– Parte-hartzea (Xede-populazioak parte hartzeko estrategiak, mekanismoak eta prozesuak, herritar aktiboak lortzea helburu; estrategiak lotu egingo dira diagnostikoarekin, helburuekin, adierazleekin, parte-hartzea sustatzeko ekintza positiboekin, planteatutako baliabideekin eta, hala behar izanez gero, ebaluazioarekin).

9.4.– Antolakuntza (xede-populazioarentzat gunek kolektiboak indartu eta/edo sortzeko estrategiak, helburu komunak lortze aldera –sinergiak, aliantzak, sareko lankidetzak, eta abar–: estrategiak lotu egingo dira diagnostikoarekin, helburuekin, adierazleekin, parte-hartzea sustatzeko ekintza positiboekin, planteatutako baliabideekin eta, hala behar izanez gero, ebaluazioarekin).

9.5.– Eskubideen ikuspegia (xede-populazioaren eskubide indibidual eta kolektiboak baliatzeko estrategiak, eta obligazioen titular direnek eskubideok exijitzea eta/edo indartzea; estrategiak lotu egingo dira diagnostikoarekin, helburuekin, adierazleekin, parte-hartzea sustatzeko ekintza positiboekin, planteatutako baliabideekin eta, hala behar izanez gero, ebaluazioarekin).

9.6.– Iraunkortasun ekologikoa (iraunkortasun ekologikoari laguntzeko estrategiak –inpaktu negatiboen analisia eta prebentzio-neurriak; proiektutik kanpoko inpaktu negatiboak gutxitzea; teknologia egokia erabiltzea; baliabideak eraginkortasunez erabiltzea; tokian tokikoari lehentasuna ematea; kontsumo-ereduak, eta abar–; estrategiak lotu egingo dira diagnostikoarekin, helburuekin, adierazleekin, parte-hartzea sustatzeko ekintza positiboekin, planteatutako baliabideekin eta, hala behar izanez gero, ebaluazioarekin).

10.– JARRAIPENA (erakunde eskatzaileak, tokiko erakundeak edo beste agente batzuek aurreikusitako jarraipen-ekintzak. Emakumeen eta gizonen aldetik ekitatezko jarraipena bermatzeko neurriak).

11.– PROIEKTUAREN EBALUAZIOA (ebaluazioa eginez gero, erakunde eskatzaileak erreferentziazko terminoak aurkeztu beharko ditu eranskinetan, honako atal hauek barne direla: aurrekariak; ebaluazioaren helburua eta esparrua; metodologia eta ikuspegia – ebaluazioaren galderak, galderetarako ebaluazio-irizpideak, datuak bildu eta aztertze sistemak; ebaluazio-taldearen betekizunak eta profila; egutegia eta kostua, baita ebaluazioaren aurkikuntza nagusien eta horietatik ikasitako guztiaren barne- eta kanpo-sozializazioaren mekanismoak ere).

12.– AURKEZTU BEHAR DIREN ATALEN ZERRENDA ETA DOKUMENTAZIOA.

(Oharra: dokumentazio guztia formatu digital bidez aurkeztuko da. Horretaz gain, paperean aurkeztuko dira formularioa, aurrekontua, esparru logikoaren matriza, eta jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatu bidez aurkeztu behar direnak).

Eskuineko zutabean, honela adierazita dago aurkeztu beharreko dokumentuen nolakotasuna: B (betekizuna) edo M (merezimendua).

| I. ATALA – ERAKUNDE ESKATZAILEA (informazio hori behin baino ez da erantsi beharko, deialdian aurkeztutako proiektu kopurua kontuan hartu gabe; proiektu bat baino gehiago aurkeztuz gero, adierazi zein proiektutan erantsi den dokumentazioa) | | |
|---|---|---------|
| 1 | Erakunde eskatzailea ordezkatzeko duen pertsonaren ahalordearen orijinala edo kopia kautotua/konpultsatua (aurkezten den lehen aldia bada edo aurreko urtearekiko aldaketarik badago). | B |
| 2 | Dagokion erregistroan erregistratua dagoelako egiaztagiriaren orijinala edo kopia kautotua/konpultsatua. | B |
| 3 | Estatutuen orijinala edo kopia kautotua/konpultsatua (aurkezten den lehen aldia bada edo aurreko urtearekiko aldaketarik badago). | B |
| 4 | Inolako zigor- edo itzulketa-prozeduraren eraginpean ez dagoela egiaztatzen duen zinpeko aitortpenaren jatorrizko agiria, 5.e) artikulua araberara. | B |
| 5 | Identifikazio fiskaleko zenbakiaren (IFZ) txartelaren orijinala edo kopia kautotua/konpultsatua. | B |
| 6 | Zerga-betebeharren ordainketari dagokionez egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, deialdia EHAA-n argitaratu zen egunaren ondorengo data duena. | B |
| 7 | Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketari dagokionez egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, deialdia EHAA-n argitaratu zen egunaren ondorengo data duena. | B |
| 8 | Aurreko urteko kontuen balantzearen jatorrizko agiria, estatutuek baimendutako norbaitek sinatuta. | B |
| 9 | Erakundearen organigramaren kopia soila. | B |
| 10 | Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat bazkide eta boluntario duen egiaztatzen duen jatorrizko ziurtagiria. | B eta M |
| 11 | Jatorrizko ziurtagiria, erakundea garapen-lankidetzarako koordinadora eta/edo sare bati atxikita eta/edo afiliatuta dagoela egiaztatzen duena; koordinadorak edo sareak jokabide-kodea izan behar du, eta dagokion jarraipen-batzordearen zehapenik ez. | M |
| 12 | Erakundeak sektorean duen esperientzia jarraitua zehazten duen agiriaren kopia soila (laburpen-taula eta guzti): azken bost urteotan kudeatutako proiektuak, tokiko erakundearen izena eta zenbatekoa eurotan. | M |
| 13 | Partzuergoen kasuan: dagokion hitzarmenaren fotokopia soila, finkaturiko ereduaren arabera. Horretaz gain, partzuergoko erakunde guztiei dagokienez, lehenago deskribatutako 12 puntuak aurkeztuko dira – betekizun edo merezimendu gisara, puntu horietan ezarritakoari jarraituz. | B |
| 14 | Atzerrian diren langileen kasuan: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurrekontratuaren edo lan-kontratuaren kopia soila, prestazioa egiteko akordio osagarriarekin batera, non zehaztuko diren helmugako herrialdean ekintzak izango dituen baldintza bereziak. ▪ Borondatezko lankidearen aseguramendu-konpromisoaren jatorrizko deklarazioa, Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak kontratatutako aseguru orokor kolektiboari atxikiz, edo hitzartutako poliza baten bitartez. Adierazitako polizak, hala | B |

2013ko irailaren 2a, astelehena

| | | |
|---|---|---|
| | <p>badagokio, borondatezko lankideen Estatutua ezartzen duen apirilaren 28ko 519/2006 Errege Dekretuaren 10.1.e) artikuluan biltzen diren gertakizunak bete beharko ditu.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Langileak atzerrira bidaltzeko premia justifikatzen duen memoriaren kopia soila, eskatutako gaitasun- eta prestakuntza-irizpideak, egin beharreko lanak eta horien iraupena deskribatuz, betiere finkatutako ereduari jarraituz. ▪ Akordio osagarriaren kopia soila. | |
| 15 | Hala badagokio, garapenerako lankidetzako Plan Estrategikoaren kopia soila. | M |
| 16 | Hala badagokio, genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren kopia soila. | M |
| 17 | Erakunde eskatzaileak EAEn ordezkari bat izanez gero, ordezkariak proiektuaren garapenean duen egitekoari buruzko azalpen-memoria, finkaturiko ereduaren arabera. | B |
| 18 | Erakundeak helmugako tokian ordezkari bat izanez gero, ordezkariak proiektuaren garapenean duen egitekoari buruzko azalpen-memoria, finkaturiko ereduaren arabera. | B |
| II. ATALA – TOKIKO BAZKIDEA | | |
| 1 | Dagokion erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen jatorrizko agiria edo kopia kautotua edo konpultsatua. | B |
| 2 | Erakunde eskatzailea ordezkari bat izanez gero, ordezkariak proiektuaren garapenean duen egitekoari buruzko azalpen-memoria, finkaturiko ereduaren arabera. | B |
| 3 | Erakundeak sektorean duen esperientzia jarraitua zehazten duen dokumentuaren kopia soila (laburpen-taula eta guzti): azken zortzi urteotan kudeatutako proiektuak eta zenbatekoa eurotan, proiektuko xede-populazioarekin dituen esperientzia-urteak (zehaztu kolektiboa ea eremu geografikoa) eta euskal GGKEarekin lan egindako esperientzia-urteak eta elkarrekin egindako proiektuak. | M |
| 4 | Erakundearen organigramaren kopia soila. | B |
| 5 | Partzuergoen kasuan, dagokion hitzarmenaren fotokopia soila, finkaturiko ereduaren arabera. Horretaz gain, partzuergoko erakunde guztiei dagokienez, lehenago deskribatutako 4 puntuak aurkeztuko dira –betekizun edo merezimendu gisara, puntu horietan ezarritakoari jarraituz. | B |
| 6 | Hala badagokio, Plan Estrategikoaren kopia soila. | M |
| 7 | Hala badagokio, genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren kopia soila. | M |
| III. ATALA – KOKAPENA | | |
| 1 | Proiektuaren kokapena zehazten duen maparen kopia soila. | B |
| IV. ATALA – AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA | | |
| 1 | Proiektuaren aurrekariari eta egiten den testuinguruari buruzko informazioaren kopia soila (erabili aurkibidea). Eskualdeko egoerari buruzko informazio sozioekonomikoa, antzeko beste proiektu batzuk, erakundeak, tokiko erakundeak, eskualdeko nazioarteko erakundeak, nola zehaztu den proiektua, zer ikerlan egin diren lehenago, eta abar. | M |
| V. ATALA – MATRIZA | | |
| 1 | Proiektuaren Planifikazio Matrizari buruzko agiriaren kopia soila, aurrekontuaren deskribapena barne hartzen duena. | B |

2013ko irailaren 2a, astelehena

| VI. ATALA – AURREKONTUA | | |
|--------------------------------|---|---|
| 1 | Kontzeptuen, partiden eta baterako finantzatzaileen arabera banakatutako aurrekontuaren kopia soila, finkatutako formatuarekin bat etorritz. | B |
| 2 | Jardueren arabera banakatutako aurrekontuaren kopia soila, finkatutako formatuarekin bat etorritz. | B |
| 3 | Proformako fakturen, balorazioen eta egiaztapenen kopia soila. | B |
| 4 | Funts propioak edo beste iturri batzuetatik lortutakoak egiaztatzen dituzten agirien kopia soila. | B |
| 5 | Hala badagokio, ordainagirien erabilerari buruzko memoriaren kopia soila, finkatutako formatuarekin bat etorritz. | B |
| 6 | Kontratu-mota horretarako, proiektua gauzatuko den herrialdeari edo eremuari dagokion batez besteko soldataren gaineko egiaztagirien kopia soila. | B |
| 7 | Hala badagokio, ebaluazioaren erreferentzia-baldintzen kopia soila. | B |
| VII. ATALA – BIDERAGARRITASUNA | | |
| 1 | Bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta erakunde-bideragarritasuna justifikatu eta egiaztatzen duen dokumentazioaren kopia soila. | M |
| 2 | Hala badagokio, errotazio-funtsari buruzko azalpen-memoriaren kopia soila, finkatutako formatuarekin bat etorritz. | B |

Boletinean argitaratu ondoren, eskabideak aurkezteko honako dokumentu hauek jarriko dira eskuragarri www.elankidetza.euskadi.net helbidean:

- 1.– Ordainagirien erabilerari buruzko azalpen-memoria.
- 2.– Atzerrian diren langileei buruzko azalpen-memoria.
- 3.– Erakunde eskatzaileak EAEn duen ordezkari buruzko azalpen-memoria.
- 4.– Erakunde eskatzaileak helmugako tokian duen ordezkari buruzko azalpen-memoria.
- 5.– Errotazio-funtsari buruzko azalpen-memoria.
- 6.– Kontzeptuen, partiden eta baterako finantzatzaileen aurrekonturako erredua.
- 7.– Jardueren arabera aurrekontuaren erredua.
- 8.– Erakunde eskatzaileek partzuergo osatzeko hitzarmen-eredua.
- 9.– Tokiko erakunde bazkideek partzuergo osatzeko hitzarmenaren erredua.
- 10.– Formulazioan erabili beharreko kanbio-tasen zerrenda.
- 11.– CAD sektoreen zerrenda.

Gainera, honako eredu hauek ere eskuragarri jarriko dira, diru-laguntza onartuz gero bete beharko direnak:

- 1.– Erakunde eskatzailearen eta tokiko erakunde bazkidearen hitzarmen-eredua.

2.- GARAPEN-HEZKUNTZARAKO PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN ESKAERA (III. KAPITULUA).

ESKAERA-KARATULA:

Erakunde eskatzailea:

Proiektuaren izena:

Deialdia:

Data (urtea/hilabetea/eguna):

Jardun-sektorea (CAD):

Jardun-sektorea (Plan Zuzentzailea 2008-2011):

Markatu laukitxo hau, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bidaliko dizkizun jakinarazpenak eskabidean adierazitako posta elektronikoaren helbidean jaso nahi izanez gero.

INFORMAZIO OROKORRA - PROIEKTUA AURKEZTEKO DATUAK:

Proiektuaren izena (hamar hitz gehienez):

Erakunde eskatzailea (izen ofiziala):

(Erantsi dokumentazioa/informazioa eranskinetako I. atalean).

Partzuergoen kasuan, lehenbizi adierazi zein den partzuergo-burua, eta, ondoren, zein diren partzuergoa osatzen duten gainerako erakundeak

Helbidea/Erakundearen egoitza:

Telefonoa/Faxa:

Helbide elektronikoa:

IFZ:

Eratze-data:

Izaera juridikoa:

EAEko ahalduna:

Kargua:

Eskaeraren ardura eta eranskinetan aurkeztutako dokumentazioaren egiazkotasuna bere gain hartzen dituela adierazteko eskuzko sinadura:

Harremanetarako pertsona (izena, telefonoa eta posta elektronikoko helbidea):

Erakundearen bazkide kopurua:

GKEan lan egiten duen pertsona kopurua (soldatapekoak eta boluntarioak, sexuaren arabera banakatuta):

Erakundeak garapenerako sentsibilizazioko edo hezkuntzako ekintzetan duen esperientzia (aipatu 6 proiektu gehienez, eta zehaztu bakoitzaren gauzatze-data eta zenbatekoa eurotan):

Erakundeak garapenerako lankidetzaproiektuetan duen esperientzia (aipatu 3 proiektu gehienez, eta zehaztu bakoitzaren gauzatze-data eta zenbatekoa eurotan):

IRAUNALDIA:

Gauzatze aurreikusitako epea (hilabete kopurua):

Aurreikusitako hasiera-data (urtea/hilabetea/eguna):

Aurreikusitako amaiera-data (urtea/hilabetea/eguna):

2013ko irailaren 2a, astelehena

FINANTZIAZIOA, GUZTIRA:

Kostua, guztira:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari eskatutako ekarpena:

(*) Partzuergoen kasuan, adierazi zenbatekoa den guztira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari eskatu zaion diru-laguntza, partzuergoko erakundeek kudeatu beharrekoa:

- Zenbatekoa da partzuergoko erakunde-buruak kudeatu beharreko diru-laguntza (euroak):
- Sartu lerro bat partzuergoko buru ez den erakunde bakoitzeko, eta adierazi zenbatekoa den kudeatu behar duten diru-laguntza (euroak):

Tokiko moneta eurotara bihurtzeko erabilitako kanbio-tasa:

Emandako edo eskatutako beste ekarpen batzuk (zehaztu):

| | Emandakoa/eskuragarri | Eskatutakoa |
|--|-----------------------|-------------|
| Euskal erakundea: | | |
| Tokiko gizarte-erakundea: | | |
| Xede-populazioa: | | |
| Bestelako ekarpenak (sartu lerro bat kofinantzazio-iturri bakoitzeko): | | |

INFORMAZIO TEKNIKOA:

1.– PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN LABURRA (deskribatu, gutxi gorabehera 10 lerrotan, proiektuaren edukia bere testuinguruan, daturik garrantzitsuenak adierazita):

2.– PROIEKTUAREN KOKAPEN ZEHATZA (erantsi mapa eranskinetako III. atalean, proiektuaren kokalekua duela).

3.– AURREKARIAK, TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA.

3.1.– Testuingurua (azaldu proiektua egin nahi den inguruaren eta hartzaile eta onuradunen ezaugarriak, parte hartuko duten erakundeak aurkeztuz, baita elkarren arteko aurretiazko harremana ere, partzuergo bat bada. Azaldu eta zedarritu proiektuaren lehentasunezko gaiak, eta argudiatu proposamena egokitzen dela bai deialdira, bai euskal lankidetzaren beste dokumentu batzuetara (plan zuzendaria, herri-estrategiak, eta abar). Bildu, atal honetan, genero-harremanen eta garapeneko zeharkako harremanen azterketa, proiektua gauzatuko den testuinguru orokorrean).

3.2.– Aurrekariak (deskribatu erakunde eskatzailearen aurretiko esperientzia, antolaketako dokumentu estrategikoak eta garapenerako hezkuntza-estrategia, eta horrek izango duen eragin politikoa, eta proiektua egiteko gaitasunak. Deskribatu ekimenaren jatorria eta abiapuntutzat hartu den azterketa, aurretiazko diagnostikoak eta azterketak txertatuz, detektatu diren genero-desberdintasunei buruzko diagnostikoa txertatuz, baita proiektuaren identifikazio-prozesuaren deskribapena ere).

3.3.– Justifikazioa (azaldu proiektua proposatzera bultzatu duten arrazoiak, konpondu nahi diren arazoak, ezarritako helburuak, jarraituko den estrategia eta abar, hartzaileei, gaiari eta proposamen motari dagokienez esku-hartzea egokia dela behar bezala frogatuz. Azaldu, labur-labur, zein estrategia erabiliko diren zehar-lerro bakoitzaren eta garapenerako hezkuntzaren dimentsioen inguruan. Hartzaileen kolektibo desberdinetan aurreikusitako eraginak deskribatu, baita aurreikuspenen arabera emakumeengan eta gizonengan izango duen inpaktu diferentziala ere).

4.– ESKU-HARTZEAREN LOGIKA.

Hurrengo ataletan, adierazi koherentziaz proiektuaren esku-hartzearen logika, eta arrazoitu honako sekuentzia hau: giza baliabideen eta baliabide tekniko edota materialen erabilera; aurreikusitako jardueren gauzatzea; emaitzen lorpena; proiektuaren xede espezifikoaren lorpena; xede orokorra lortzeko ekarpena.

Proiektuaren Planifikazio Matrizea (PPM) erantsiko da. PPM horretan, labur-labur azalduko dira kontzeptu horiek, adierazleekin, egiaztapen-iturriekin, hipotesiekin eta kanpoko faktoreekin batera.

4.1.– Helburu orokorra (deskribatu proiektua gauzatzeko lortu nahi den helburu zabalena).

4.2.– Proiektuaren helburu espezifikoa.

4.2.1.– Helburu espezifikoa (deskribatu nolako eragina lortu nahi den giza garapen jasangarriaren arloan).

4.2.2.– Helburu espezifikoaren lortze-mailaren adierazleak (deskribatu adierazle zehatz, egiaztagarri eta neurgarriak, prozesu-adierazleak eta eragin-adierazleak, kantitateari edo nolakotasunari, denborari eta xede-populazioari dagozkien datuekin, helburu espezifikoa lortzen egiaz lagundu ote den egiaztatzeko. Proiektuaren genero-eragina neurtzeko adierazleak, bai emakumeen berariazko goieran, bai desberdintasun-harremanetan).

4.2.3.– Adierazleen egiaztapen-iturriak (zehaztu nolako egiaztapen-iturriak erabiliko diren adierazleak betetzen direla egiaztatzeko –inkestak, zuzeneko behaketa, argitalpenak...- egiaztatu egingo da adierazleak bete diren).

4.2.4.– Kanpoko faktoreak edo hipotesiak (deskribatu aintzat hartu beharreko hipotesiak edo kanpoko faktoreak, betiere proiektuaren kontrol zuzenetik kanpokoak izanik, gertatzeko aukera handia badute eta, kasuak kasu, proiektuak arrakasta izatean eragin erabakigarria izan badezakete). Proiektuaren mesederako direnak aipatu behar dira.

4.3.– Espero diren emaitzak.

4.3.1.– Espero diren emaitzak (deskribatu proiektua gauzatzean lortuko diren produktuak eta zerbitzuak; produktu eta zerbitzu horiek egindako jardueren ondoriozkoak dira eta helburu espezifikoak lortzen lagunduko dute).

4.3.2.– Emaitzen lortze-mailaren adierazleak (deskribatu adierazle zehatz, egiaztagarri eta neurgarriak, prozesu-adierazleak eta eragin-adierazleak, kantitateari edo nolakotasunari, denborari eta xede-populazioari dagozkien datuekin, aurreikusitako emaitzak lortzen egiaz lagundu ote den egiaztatzeko. Proiektuaren genero-eragina neurtzeko adierazleak, bai emakumeen berariazko egoeran, bai genero-desberdintasunaren harremanetan.

4.3.3.– Adierazleen egiaztapen-iturriak (zehaztu nolako egiaztapen-iturriak erabiliko diren adierazleak betetzen direla egiaztatzeko –inkestak, zuzeneko behaketa, argitalpenak...–).

4.3.4.– Kanpoko faktoreak edo hipotesiak (emaitzak lortu eta gero, helburu espezifikora iristeko beharrezkoak diren proiektuaz kanpoko baldintzak deskribatuko dira).

4.4.– Aurreikusitako jarduerak (zehatz deskribatuko dira emaitzak lortzeko aurreikusi diren jarduerak, eta adierazi ekintza bakoitzerako beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak eta materialak. Eranskinetako VI. atalean, aurrekontua jasoko da, jardueren arabera banakatuta).

5.– XEDE-POPULAZIOAREN EZAUGARRIAK.

5.1.– Xede-populazioa identifikatzea (sexuaren arabera bereizita), oinarrizko ezaugarri sozioekonomikoei buruzko informazioa barne.

5.2.– Deialdian lehentasuna eman zaien kolektiboen presentzia (hezkuntza-agentek, gizarte zibileko erakundeetako kideak, komunikazioaren eta kultura-produkzioaren profesionalak, eta abar).

5.3.– Xede-populazioa aukeratzeko irizpideak (hala badagokio, deskribatu emakumeen eta euskal gizarteko beste kolektibo baztertu batzuen parte-hartzea bultzatzeko ekintza positiboak).

5.4.– Proiektuaren zein fasetan eta nola hartzen duen parte xede-populazioak (arreta berezia eskainiko zaio emakumeek proiektuan duten parte-hartzeari).

5.5.– Xede-populazioarengana hurbiltzeko estrategiak.

6.- JARDUEREN KRONOGRAMA (4.4 atalean deskribatutako jarduerak lehenengo zutabean adierazita daude. X batez adieraziko da jarduera gauzatzeko aurreikusitako epea).

| Urteak | 1. | | | | 2. | | | |
|---------------|----|----|----|----|----|----|----|----|
| | 1. | 2. | 3. | 4. | 1. | 2. | 3. | 4. |
| Hiruhilekoa | | | | | | | | |
| 1. emaitza | | | | | | | | |
| Jarduerak | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| emaitza | | | | | | | | |
| Jarduerak | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |

7.– BALIABIDEEN DESKRIBAPENA.

7.1.– Giza baliabideak eta kontratazioak (Deskribatu proiektuaren gauzatze orokorrerako behar diren giza baliabideak, horien nahikotasuna eta egokitasuna justifikatuz).

Langileen kasuan, zehaztu beteko dituzten funtzioak eta proiektuaren jarduerak gauzatzeko izango duten dedikazio zehatza, baita beren esperientzia eta prestakuntza lanpostuaren profilerak egokitzen dela ere. Azaldu emakumeen edo gizartean baztertuta dauden kolektiboaren kontratazioa bultzatzen duten ekintza positiboko neurriak hartuko ote diren.

Kontratazioen kasuan, azaldu nola egin den edo egingo den kontratatutako zerbitzuak egingo dituzten erakundearen hautaketa, horiek kontratatuzeko premia eta egokitasuna behar bezala argudiatuz).

7.2.– Aurreikusitako baliabide teknikoak eta materialak (deskribatu beharrezko baliabideak proposamen motara eta proiektuan erabilitako prozeduretara nola egokitzen diren. Azaldu proposamena nola egokitzen den kolektibo ez-tradizionaletara, gaitasun desberdinak dituzten pertsonetara eta abar, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien eta metodologia didaktiko berritzaileen erabilera ere, horretarako beharrezkoak diren baliabide tekniko eta materialak deskribatuz).

2013ko irailaren 2a, astelehena

8.- PROIEKTUAREN AURREKONTUA ETA FINANTZAKETA. BATERAKO FINANTZATZAILEEN ARABERAKO BANAKAPENA (eranskinetako VI. atalean aurrekontu-partida bakoitzerako aurreikusitako kostua eta haren kontzeptuak banakatuko dira, baterako finantzatzaileak zehaztuta. Gainera, eranskinetan, aurrekontu bat ere aurkeztuko da, jardueren arabera banakatuta).

| PARTIDAK | Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia | Euskal erakunde eskatzailea | Erakundea edo tokiko erakundea | Beste ekarpen batzuk | GUZTIRA |
|----------------------------|--|-----------------------------|--------------------------------|----------------------|---------|
| 1.- Materialak | | | | | |
| 2.- Langile-eremua | | | | | |
| 3.- Bidaiak eta egonaldiak | | | | | |
| 4.- Kontratazioak | | | | | |
| 5.- Funtzionamendua | | | | | |
| 6.- Ebaluazioa | | | | | |
| ZUZENEKO KOSTUAK, GUZTIRA | | | | | |
| 1.- Administrazio-gastuak | | | | | |
| ZEHARKAKO KOSTUAK, GUZTIRA | | | | | |
| GUZTIZKOA, ORO HAR | | | EZ | EZ | |

9.– PROIEKTUAREN DIMENTSIO POLITIKOA.

9.1.– Proiektuan inplikaturako pertsonen parte-hartzea eta mobilizazioa (deskribatu nolako estrategiak erabiliko diren xede-populazioak aktiboki eta zuhertasunez parte har dezan proiektuaren fase desberdinetan).

9.2.– Gizarte-ekintza eta -mobilizazioa sustatzeko estrategiak (deskribatu xede-populazioaren antolaketa-gaitasunak indartzera bideratutako ekintzak, mugimendu politikoetan eta gizarte-mugimenduetan parte hartzeko, eta deskribatu xede-populazioaren gizarte-mobilizatorako ekintza zehatzak).

9.3.– Proiektuak erakunde eskatzailearen eragin politikorako estrategiarekin duen erlazioa.

9.4.– Proiektuak kanpaina edo sare handiagoekin duen erlazioa (adierazi proiektua sare baten edo erakunde-artikulazio baten kanpaina edo lan-planen baten barnean ote dagoen).

9.5.– Boluntariora eta erakundea EAEn indartzea (deskribatu boluntarioen parte-hartzea, proiektuaren faseak eta beste agente batzuekiko –gizarte-etxeak, auzo-elkarteak, gazteria-zerbitzuak eta abar- erlazioa eta inplikazio-maila).

10.– PROIEKTUAREN KULTURARTEKO DIMENTSIOA.

10.1.– EAEn kulturarteko bizikidetzarako guneak sortzea (deskribatu proiektuan EAEko kolektibo eta kultura desberdinen nortasun pertsonala eta komunitarioa indartzera destinatutako guneak).

10.2.– Herrialde pobretuetako erakundeen eta euskal erakundeen arteko artikulazioa eta trukea.

10.3.– Kulturarteko sentsibilizazioa (deskribatu euskal gizarte kulturarteko baten eratzea sustatzera bideratutako jarduerak).

10.4.– EAEko bi hizkuntza ofizialak erabiltzea (azaldu nola bermatuko den aldibereko itzulpen elebiduna sentsibilizazio-kanpainetan, jardunaldietan, kongresuetan eta abar, baita proiektuaren esparruan landutako komunikazio-material eta -euskarri guztien produkzio elebiduna ere).

11.– DIMENTSIO PEDAGOGIKOA.

11.1.– Proposamenaren ikuspegi pedagogikoaren deskribapen arrazoitua.

11.2.– Tresna pedagogikoak txertatzea garapenaren zehar-lerroak hezkuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan sartzeko (deskribatu proiektuaren ikuspegi pedagogikoak nola txertatzen dituen honako hauek ikasteko: gatazka-konponketa, giza eskubideak, kontsumo arduratsua eta ingurumen-hezkuntza, hezkidetzako tresnak eta abar, hezkuntza-proiektuan garapenerako zehar-lerroen inplementazioa bermatzeko).

11.3.– Ikaskuntza-metodologia parte-hartzaileak eta gizarte-ekintzara bideratuak txertatzea (azaldu proiektuaren metodologia pedagogikoak nola sustatzen dituen prestakuntza eta gizarte-ekintza lotzen dituzten estrategien bilaketa kooperatiboa, trukea eta ahalduntzerako estrategiak).

11.4.– Hezkuntza-agenteeekin aurreikusitako esku-hartzea (hala dagokionean, deskribatu nola erlazionatu nahi diren hezkuntza-zentroak eta agenteak Garapenerako Hezkuntzan berrikuntza-esperientziak bultzatzeko).

12.– GENERO IKUSPEGIAREN ZEHARKAKOTASUNA.

12.1.– Emakumeak eta horien erakundeak garapenaren subjektu gisa ikustea (deskribatu, proiektuaren burutzapenean zehar, hegoaldean nahiz iparraldean emakumeen ahalordetze-prozesuak ikusi eta indartzeko ekintzak eta emakumeek garapenean izango duten papera ikustea bermatuko duten baliabide materialak eta giza baliabideak).

12.2.– Sustatzea GED Generoa Garapenean ikuspegia garapenerako lankidetzan txertatzeko aukera (deskribatu xede-populazioari Generoa Garapenean ikuspegia txertatzeko prestakuntza-edo truke-ekintzak).

12.3.– Proiektuan emakumeen eta horien erakundeen parte-hartzea sustatzea (deskribatu mekanismo zehatzak: kuotak, ekintza positiboak,... proiektuaren jardueretan gizonen eta emakumeen eta emakumeen erakundeen eta erakunde feministen ekitatezko parte-hartzea sustatzeko).

12.4.– Proiektuaren material eta produktuetan hizkuntza barneratzailea eta ez-sexista erabiltzea (azaldu nola bermatzen den hizkuntza barneratzailea erabiliko dela idatzizko materialetako eta gainerako euskarrietako mezu eta irudietan: web-orriak, erakusketak, eta abar).

12.5.– Maskulinitate ez-sexistetarako sentsibilizazioa (deskribatu gizonen duten botere-egoeratik justizian, ekitatean eta berdintasunean oinarritzen den maskulinitateaz jabetzera bideratutako ekintzak).

13.– HEGOALDEKO IKUSPEGIA TXERTATZEA.

13.1.– Hegoaldeko ikuspegia euskal gizarteari transmititzeko jarduerak (deskribatu nola hartzen duten parte herrialde txiroetako pertsonak eta elkarteek proiektuaren jardueretan, baita hegoaldeko jakintzen, esperientzien eta beste produktu kultural eta intelektual batzuen hedapena ere, EAEko biztanlerian hegoaldeko ikuspegia hobetzeko xedez).

13.2.– Hegoaldeko herri eta herrialdeei buruzko imaginario negatiboa eraldatzea (deskribatu ildo horretan egingo diren hausnarketa-, azterketa- eta sentsibilizazio-jarduerak, baita estereotipoetan eta jarreretan aurreikusitako aldaketak neurtzea ahalbidetzen duten adierazleak ere).

13.3.– Proiektuan etorkinen elkarteek eta EAEko bestelako talde etniko minoritarioek parte hartzea.

14.– HEDAPEN SISTEMA

Atal honetan, behar bezala justifikatu beharko da informazioa hedatzeko sistema egokia erabiltzen dela xede-biztanleriaren ezaugarrien arabera (adina, sexua, hizkuntza, baldintza sozioekonomikoak, bizilekua, baliabideak eta gaitasunak), baita biztanleriaren interesen eta premien arabera ere. Era berean, deskribatu behar da proiektuko produktuen banaketa-plana, eta denok produzitutako materialetarako sarbidea izango dutela bermatzeko estrategiak ere.

15.– IRAUNKORTASUNA

Deskribatu proiektuaren inpaktuen iraunkortasuna ziurtatuko duen jarraikortasun-estrategia, xede-biztanleriaren gaitasunak indartzearen bitartez.

16.– JARRAIPENA (erakunde eskatzaileak edo beste agente batzuek aurreikusitako jarraipen-ekintzak. Emakumeen eta gizonen aldetik ekitatezko jarraipena bermatzeko neurriak).

17.– PROIEKTUAREN EBALUAZIOA.

Ebaluazioa eginez gero, erakunde eskatzaileak erreferentziatzko terminoak aurkeztu beharko ditu eranskinetan, honako atal hauek barne direla: aurrekariak; ebaluazioaren helburua eta esparrua; metodologia eta ikuspegia -ebaluazioaren galderak, galderetarako ebaluazio-irizpideak, datuak bildu eta aztertzeko sistema-; ebaluazio-taldearen betekizunak eta profila; egutegia eta kostua.

| |
|--|
| |
|--|

18.– AURKEZTU BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA.

(**Oharra:** ahal den neurrian, eskaera nahiz dokumentazioa formatu digital bidez helaraziko da; ez, ordea, Eskaera-karatula eta Dokumentazio orokorra-Proiektua Aurkezteko Datuak).

Eskuineko zutabean, honela adierazita dago aurkeztu beharreko dokumentuen nolakotasuna: B (betekizuna) edo M (merezimendua).

| ERAKUNDE ESKATZAILEA (informazio hori behin baino ez da erantsi beharko, deialdian aurkeztutako proiektu kopurua kontuan hartu gabe) | | |
|--|---|---------|
| 1 | Erakunde eskatzailea ordezkatzeko duen pertsonaren ahalordearen orijinala edo kopia kautotua/konpultsatua (aurkezten den lehen aldia bada edo aurreko urtearekiko aldaketarik badago). | B |
| 2 | Dagokion erregistroan erregistratua dagoelako egiaztagiriaren orijinala edo kopia kautotua/konpultsatua. | B |
| 3 | Estatutuen orijinala edo kopia kautotua/konpultsatua (aurkezten den lehen aldia bada edo aurreko urtearekiko aldaketarik badago). | B |
| 4 | Inolako zigor- edo itzulketa-prozeduraren eraginpean ez dagoela egiaztatzen duen zinpeko aitortzenaren jatorrizko agiria, 5.e) artikulua araberak. | B |
| 5 | Identifikazio fiskaleko zenbakiaren (IFZ) txartelaren orijinala edo kopia kautotua/konpultsatua. | B |
| 6 | Zerga-betebeharren ordainketari dagokionez egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, deialdia EHAA-n argitaratu zen egunaren ondorengo data duena. | B |
| 7 | Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketari dagokionez egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, deialdia EHAA-n argitaratu zen egunaren ondorengo data duena. | B |
| 8 | Inolako zigor- edo itzulketa-prozeduraren eraginpean ez dagoela egiaztatzen duen zinpeko aitortzenaren jatorrizko agiria, 5.e) artikulua araberak. | B |
| 9 | Identifikazio fiskaleko zenbakiaren (IFZ) txartelaren orijinala edo kopia kautotua/konpultsatua. | B |
| 10 | Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat bazkide eta boluntario duen egiaztatzen duen jatorrizko ziurtagiria. | B eta M |
| 11 | Jatorrizko ziurtagiria, erakundeak garapen-lankidetzarako koordinadora eta/edo sare bati atxikita eta/edo afiliatuta dagoela egiaztatzen duena; koordinadorak edo sareak jokabide-kodea izan behar du, eta dagokion jarraipen-batzordearen zehapenik ez. | M |
| 12 | Honako jakingarri hauek zehazten dituen agiriaren kopia soila (laburpen-taula eta guzti): erakundeak garapenerako sentsibilizazioaren eta hezkuntzaren sektorean duen esperientzia; azken bost urteotan kudeatutako proiektua, honako hauek zehaztuta: proiektuen izenak, egun zein egoeratan dauden, eta proiektu esanguratsuenen zenbatekoak eurotan. | M |

2013ko irailaren 2a, astelehena

| | | |
|-----------|--|---------|
| 13 | Partzuergoen kasuan: dagokion hitzarmenaren fotokopia soila, finkaturiko ereduaren arabera. Horretaz gain, partzuergoko erakunde guztiei dagokienez, lehenago deskribatutako 12 puntuak aurkeztuko dira –betekizun edo merezimendu gisara, puntu horietan ezarritakoari jarraituz. | B |
| 14 | Beste erakunde batzuek proiektuaren jardura batean edo batzuetan parte hartzen badute, erakunde bakoitzak proiektuan parte hartuko duela bermatzen duen konpromisoren jatorrizko agiria aurkeztu behar da. | B |
| 15 | Hala badagokio, erakunde eskatzailearen Plan Estrategikoaren kopia soila. | M |
| 16 | Hala badagokio, erakunde eskatzailearen garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntzako strategiaren kopia soila. | M |
| 17 | Hala badagokio, erakunde eskatzaileak eragin politikoaren arloan duen strategiaren kopia soila. | M |
| 18 | Hala badagokio, erakunde eskatzaileak egindako genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren kopia soila. | M |
| 19 | Erakunde eskatzaileak EAEn ordezkari izanez gero, ordezkariak proiektuaren garapenean duen egitekoari buruzko azalpen-memoria, finkaturiko ereduaren arabera. | B |
| PROIEKTUA | | |
| 20 | Aurrekarietan aipatu diren diagnostikoak, oinarri-lineak, azterlanak edo ikerketak baldin badaude, horien kopia aurkeztu beharko da edozein formatutan. | M |
| 21 | Proiektuaren Planifikazio Matrizeari buruzko agiriaren kopia soila, aurrekontuaren deskribapena barne hartzen duena. | B |
| 22 | Kontzeptuen, partiden eta baterako finantzatzaileen arabera banakatutako aurrekontuaren kopia soila, finkatutako formatuarekin bat etorritik. | |
| 23 | Jardueren arabera banakatutako aurrekontuaren kopia soila, finkatutako formatuarekin bat etorritik. | B |
| 24 | Proforma fakturen, balorazioen eta egiaztapenen kopia soila. | B |
| 25 | Funts propioak edo beste iturri batzuetatik lortutakoak egiaztatzen dituzten agirien kopia soila. | B |
| 26 | Hala badagokio, ordainagiriaren erabilerari buruzko memoriaren kopia soila, finkatutako formatuarekin bat etorritik. | B |
| 27 | Hala badagokio, ebaluazioaren erreferentzia-baldintzen kopia soila. | B |
| 28 | Aurkeztuko dira, halaber, proiektuaren kargura kontratatutako diren langileen Curriculum Vitaeak eta horien egokitasunari buruzko azalpen-memoriak, horien esperientzia profesionala eta ibilbide akademikoa lanpostuaren profilerak egokitzen dela behar bezala justifikatuz. | B |
| 29 | Boluntarioek parte hartzen badute, aurkeztu behar dira boluntariotzako kontratu indibidualak, boluntarioen aseguru kolektiboa kreditatzen duen dokumentazioa eta abar, baita Boluntariotzaren Euskal Erroldan izena emanda egotearen ziurtagiria ere. | B eta M |
| 30 | Bideragarritasun teknikoari, erakunde-bideragarritasunari, testuinguruari, azterlanei, txostenei buruzko dokumentazioari eta abarri buruzko dokumentazioaren kopia soila aurkeztuko da (eranskinetan). | M |

Honako dokumentu hauek jarriko dira eskuragarri www.elankidetza.euskadi.net helbidean:

- 1.– Ordainagiriaren erabilerari buruzko azalpen-memoria.
- 2.– EAEn erakunde eskatzaileak duen ordezkari iraunkorraren esplikazioa-memoria
- 3.– Kontzeptuen, partiden eta baterako finantzatzaileen aurrekonturako eredia.
- 4.– Jardueren arabera aurrekontuaren eredia.
- 5.– Erakunde eskatzaileek partzuergo osatzeko hitzarmen-eredua.
- 6.– CAD sektoreen zerrenda.

2013ko irailaren 2a, astelehena

III. ERANSKINA (A)**EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA BAKOITZERAKO, GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAK ETA ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK
SINATU BEHARREKO HITZARMENAREN EREDUA**

Vitoria-Gasteizen, 2013kon

BERTARATU DIRA:

Batetik, erakundeak (hemendik aurrera, erakunde esleipenduna deituko diogu), IFZ duenak, eta, erakunde esleipendunaren lege ordezkaria den aldetik, andreak/jaunak ordezkatuta.

Eta, bestetik, **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak** (hemendik aurrera **GLEA**), Paul Ortega Etcheverry zuzendaria den aldetik.

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

Elkarri aitortzen diotela ordezkaritza-ahalmena dutela, eta indarrekoztat jotzen dutela ahalmen hori, baita baterako finantziatorako HITZARMEN hau sinatzeko behar besteko lege-ahalmena dutela ere. Hori guztia dela-eta, hitzarmena honako klausula hauen arabera gauzatzea erabaki dute:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Hitzarmen hau erreferentzia-zenbakia duen garapen-lankidetzari buruzko (adierazi proiektuaren izena) proiektuaren baterako finantziarioari dagokio bakarrik.

Bigarrena.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak euro ordainduko ditu guztira, hiru epetan.

1. ordainketa: euro
2. ordainketa: euro
3. ordainketa: euro

Hirugarrena.– Erakunde esleipendunak adierazi du proiektuaren benetako hasiera-data honako hau dela: (Hasiera-data, letraz). Era berean, proiektuaren amaiera-data (letraz) izango da.

Laugarrena.– Adierazi erakundearen izena.

- Hitzarmen hau eta indarreko araudia beteko ditu, 2013ko irailaren 2ko EHAAn argitaratutako 2013rako Garapen Lankidetzarako proiektuetarako laguntzen deialdia arautzen 2013ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren arabera,
- Jarraipen-txostenak aurkeztuko ditu, protokolo narratibo-finantzarioari jarraikiz, eta protokolo horretan emandako argibideen arabera. Lehen txostena 2. ordainketa eskatzerakoan aurkeztuko du; bigarren txostena, berriz, 3. ordainketa eskatzerakoan, eta azken txostena proiektua bukatu ondoko sei hilabeteen barruan.

2013ko irailaren 2a, astelehena

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari proiektua funtsean alda dezala eskatuko dio, honako aldaketa hauetakoren bat egin nahi izanez gero:
 - + Onuradun kopurua aldatzea, aurrekontu-ondorioak edozein izanik ere.
 - + Proiektuaren kokapenean edozein aldaketa egitea.
 - + Tokiko erakundea aldatzea.
 - + Aurrekontua gauzatzeko epea aldatzea.
 - + Gastuak aldatzea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzaren partidaren aurrekontuan bildutako diru-kopuruaren % 10etik gora. Baliteke % 10etik gorako gaingastu bat izatea, baita % 10etik gorako saldo bat ere (gastatu gabeko zenbateko bat).
 - + Helburua eta emaitzak aldatzea.
- Jarraipen-txostenetan gertatzen diren aldaketen berri emango du, nahiz aldaketa horiek funtsezkoak izan ez.

Bosgarrena.– Erakunde esleipendunak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntza hau kudeatzeko, kontu espezifiko gisa honako kontu hau baliatuko du: (kontu zenbakia eta bankuaren izena/helbidea). Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ordainketa bakoitzean transferitutako diru-kopurua kontu espezifiko horretara transferituko da berehala, eta ezin izango da aurrez inolako fondo-mugimendurik egin.

Seigarrena.– Erakunde esleipendunak jakinarazten du tokiko erakundeak (bankuaren izena), edo erakunde esleipendunak proiektua gauzatzen duen herrialdean duen ordezkariak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntza kudeatzeko, proiektua gauzatzekoa den herrialdean kontu espezifiko gisa erabiliko duela honako banku-kontu hau (adierazi kontua identifikatzeko beharrezkoak diren datu guztiak –lehenengo ordainketa izapidetzeko eman behar dira datu horiek, eta aurrerago aldatu ahal izango dira, hala behar izanez gero; adierazi, halaber, bankuaren izena eta helbidea). Erakunde esleipendunetik transferitutako diru-kopuruak tokiko erakundearen kontu espezifiko horretara transferituko dira, beharrezkoa izango den dibisan, eurotan bidaltzea komeni ez bada.

Zazpigarrena.– Erakunde esleipendunak zuhurtzia handiz erabili behar ditu fondo horiek, hau da, proiektuaren helburuak lortzearren bakarrik erabili behar ditu, ahalik eta ondoen erabili ere. Tokira egin beharreko transferentzia zatitzen bada edo aurretiaz ezaguna den bolada batez ezinbestean atzeratzen bada, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeaketa hobetzeko jasotako fondoak inbertitu ahal izango dira. Funtsak ezin izango dira inola ere arriskuan jarri erakunde esleipendunak kontrolatu ezin duen kanpoko faktorerik badago. Honako baldintza hauek gertatzen badira bakarrik onartzen da funtsak inbertitzea:

- Arrazoi batek justifikatzen badu dirua tokira transferitu ezin izatea.
- Aldez aurretik badakigu arrazoi horrek zenbat iraungo duen.
- Inbertsioak ez badakar diru-laguntza entitate esleipendunak kontrolatu ezin ditzakeen kanpo-faktoreen eraginpean jartzea.
- Inbertsioa bermatuta badago, hau da, inbertitutako diru-kopurua murrizterik ez badago.

Zortzigarrena.– Erakunde esleipendunak egoitzako eta helmugako kontu espezifikoetan sortutako interesak proiektuaren zuzeneko kostuen partidetan aplikatuko ditu, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren ekarpentzat hartuko dira. Ez da beharrezkoa izango baimena eskatzea partida batean edo batzuetan erabiltzeko. Hala ere, lortutako interesen zenbatekoa eta erakundeak gastua egozteko aukeratutako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren kargurako partida edo partidak jasoko dira finantza-txostenean.

2013ko irailaren 2a, astelehena

Bederatzigarrena.– Edonola ere, proiektua gauzatzeko epea amaitu aurretik transferitu behar ditu erakundeak funtsak helmugara.

Hamargarrena.– Erakunde esleipendunak egotzitako diru-kopuruen egiaztagiriak aurkeztuko ditu txosten guztiekin batera. Agiri horiek jatorrizko agirien fotokopiak izango dira. Jatorrizko agiri horiek aurretik bideratu beharko dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzari egotzitako gastuak badira; beste finantzatzaileen kasuan, berriz, fotokopia sinpleak izango dira. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntza egiaztatzen duten agirien eginbidea zigilu bat da, eta zigilu horretan proiektuaren izena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren izena eta deialdiaren urtea adieraziko da. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta beste finantzatzaileen konturako gastuak justifikatzen dituzten agirietan, eginbidearekin batera Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzari egozten zaion zenbatekoa adierazi beharko da. Dokumentu horiei guztiei dagokienez, erakunde esleipendunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du originalak non dauden adieraziz eta benetako kopiak direla berretsiz. Orobat, jatorrizko agiriak bost urtez gorde beharko ditu, eta aldi horretan agiri horiek osorik edo zati batean erakusteko eskatu ahal izango du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, emandako kopiekin alderatzeko asmoz.

Eta bidezko ondorioetarako horrela jasota gera dadin, hitzarmen honen hasieran aipatutako lekuan eta egunean sinatzen du.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

Erakunde esleipenduna

Sin. Paul Ortega Etcheverry,
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria

Sin.: erakundearen lege ordezkariaren izena Kargua

2013ko irailaren 2a, astelehena

III. ERANSKINA (B)**EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA BAKOITZERAKO, GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAK ETA ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK
SINATU BEHARREKO HITZARMENAREN EREDUA**

Vitoria-Gasteizen, 2013kon

BERTARATU DIRA:

Batetik, erakundeak (hemendik aurrera, erakunde esleipenduna deituko diogu), IFZ duenak, eta, erakunde esleipendunaren lege ordezkaria den aldetik, andreak/jaunak ordezkatuta.

Eta, bestetik, **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak** (hemendik aurrera **GLEA**), Paul Ortega Etcheverry zuzendaria den aldetik.

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

Elkarri aitortzen diotela ordezkaritza-ahalmena dutela, eta indarrekoztat jotzen dutela ahalmen hori, baita baterako finantziatorako HITZARMEN hau sinatzeko behar besteko lege-ahalmena dutela ere. Hori guztia dela-eta, hitzarmena honako klausula hauen arabera gauzatzea erabaki dute:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Hitzarmen hau erreferentzia-zenbakia duen garapen-lankidetzari buruzko (adierazi proiektuaren izena) proiektuaren baterako finantziarioari dagokio bakarrik.

Bigarrena.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak euro ordainduko ditu guztira, hiru epetan.

1. ordainketa: euro
2. ordainketa: euro
3. ordainketa: euro

Hirugarrena.– Erakunde esleipendunak adierazi du proiektuaren benetako hasiera data honako hau dela: (letraz). Era berean, proiektuaren amaiera data (letraz) izango da.

Laugarrena.– Adierazi erakundearen izena.

- Hitzarmen hau eta indarreko araudia beteko ditu, 2013ko irailaren 2ko EHAAn argitaratutako 2013rako Garapen Lankidetzarako proiektuetarako laguntzen deialdia arautzen duen 2013ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren arabera,
- Jarraipen-txostenak aurkeztuko ditu, protokolo narratibo-finantzarioari jarraiki, eta protokolo horretan emandako argibideen arabera. Lehen txostena 2. ordainketa eskatzerakoan aurkeztuko du; bigarren txostena, berriz, 3. ordainketa eskatzerakoan, eta azken txostena proiektua bukatu ondoko sei hilabeteen barruan.

2013ko irailaren 2a, astelehena

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari proiektua funtsean alda dezala eskatuko dio, honako aldaketa hauetakoren bat egin nahi izanez gero:
 - + Onuradun kopurua aldatzea, aurrekontu-ondorioak edozein izanik ere.
 - + Proiektuaren kokapenean edozein aldaketa egitea.
 - + Tokiko erakundea aldatzea.
 - + Aurrekontua gauzatzeko epea aldatzea.
 - + Gastuak aldatzea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzaren partidaren aurrekontuan bildutako diru-kopuruaren % 10etik gora. Baliteke % 10etik gorako gaingastu bat izatea, baina % 10etik gorako saldo bat ere (gastatu gabeko zenbateko bat).
 - + Helburua eta emaitzak aldatzea.
- Jarraipen-txostenetan gertatzen diren aldaketen berri emango du, nahiz aldaketa horiek funtsezkoak izan ez.

Bosgarrena.– Erakunde esleipendunak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntza hau kudeatzeko, kontu espezifiko gisa honako kontu hau baliatuko du: (kontu zenbakia eta bankuaren izena/helbidea). Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ordainketa bakoitzean transferitutako diru-kopurua kontu espezifiko horretara transferituko da berehala, eta ezin izango da aurrez inolako fondo-mugimendurik egin.

Seigarrena.– Erakunde esleipendunak zuhurtzia handiz erabili behar ditu fondo horiek, hau da, proiektuaren helburuak lortzearren bakarrik erabili behar ditu, ahalik eta ondoen erabili ere. Funtzak ezin izango dira inola ere arriskuan jarri erakunde esleipendunak kontrolatu ezin duen kanpoko faktorerik badago.

Zazpigarrena.– Erakunde esleipendunak egoitzako eta helmugako kontu espezifikoan sortutako interesak proiektuaren zuzeneko kostuen partidetan aplikatuko ditu, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren ekarpentzat hartuko dira. Ez da beharrezkoa izango baimena eskatzea partida batean edo batzuetan erabiltzeko. Hala ere, lortutako interesen zenbatekoa eta erakundeak gastua egozteko aukeratutako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren kargurako partida edo partidak jasoko dira finantza-txostenean.

Zortzigarrena.– Erakunde esleipendunak egotzitako diru-kopuruaren egiaztagiriak aurkeztuko ditu txosten guztiekin batera. Agiri horiek jatorrizko agirien fotokopiak izango dira. Jatorrizko agiri horiek aurretik bideratu beharko dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzari egotzitako gastuak badira; beste finantzatzaileen kasuan, berriz, fotokopia sinpleak izango dira. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntza egiaztatzen duten agirien eginbidea zigilu bat da, eta zigilu horretan proiektuaren izena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren izena eta deialdiaren urtea adieraziko da. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta beste finantzatzaileen konturako gastuak justifikatzen dituzten agirietan, eginbidearekin batera Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzari egozten zaion zenbatekoa adierazi beharko da. Dokumentu horiei guztiei dagokienez, erakunde esleipendunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du originalak non dauden adieraziz eta benetako kopiak direla berretsiz. Orobat, jatorrizko agiriak bost urtez gorde beharko ditu, eta aldi horretan agiri horiek osorik edo zati batean erakusteko eskatu ahal izango du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, emandako kopiekin alderatzeko asmoz.

2013ko irailaren 2a, astelehena

Eta bidezko ondorioetarako horrela jasota gera dadin, hitzarmen honen hasieran aipatutako lekuan eta egunean sinatzen du.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

Erakunde esleipenduna

Sin. Paul Ortega Etcheverry,
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria

Sin.: erakundearen lege ordezkariaren izena eta kargua